

hh
hik hasi

Antoni Zabala i Vidiellari elkarriketa
Bizikidetza eta hezikidetza eskuz esku
Partaidetza edo lankidetza,
autonomiaren giltza 0-3 adin-tartean
Kultur transmisiorako prestakuntza
Ikusgela
Naroa Jaio Jaio



LH MUGIMENDUAN

ONGIZATE EMOZIONALA LANTZEKO BALIABIDEAK ETA JARDUERAK!

BERRIA

BERRIA



AURKIBIDEA

GAIA / 10

ERALDAKETAREN GURPILEAN

Lehen Hezkuntza eraldaketaren gurpilean murgilduta dago Hego Euskal Herrian. Hik Hasi Udako Topaketetan ere gai horren inguruko ikastaro bat antolatu zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin batera: 'Lehen Hezkuntza eraldatzen'. Han esandakoak laburbildu dira zenbaki honetako erreportajearen nagusian.

ELKARRIZKETA / 16

ANTONI ZABALA I VIDIELLA

Berritzeguneez gonbidatuta etorri zen iazko ikasturte amaieran Donostiara Zabala i Vidiella unibertsitate irakaslea eta pedagogoa. Aspaldi hasi zen konpetentzietan oinarritutako hezkuntzari buruz idazten eta hitz egiten, eta oraindik ere gaurkotasanik galdu ez duten ideiak zabaltzen dihartu, behar direlako, inondik inora.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L

Hezkuntza Sailak onetsia (2022-10-3).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiek.

5 EDITORIALA

Freskotasuna hasieran eta amaieran

10 GAI NAGUSIA

Eraldaketaren gurpilean
Lehen Hezkuntzan

16 ELKARRIZKETA

ANTONI ZABALA I VIDIELLA

"Eskolaren funtzioa
erabakitzea hautu
ideologikoa da:
hezi egin nahi dugu ala ez?"

22 ESPERIENTZIAK

Bizikidetza eta hezkidetza
eskuz esku

26 EKARPENAK

Partaidetza edo lankidetza,
autonomiaren giltza 0-3
adin-tartean

32 EKARPENAK

Legearen aurreproiektuaren
zirriborroari ekarpenak
egiteko prest dira eragileak

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Ingo xonau? Ingo xuau!

36 GALDEIDAZU

Zein erronka ditu irakasleen
prestakuntzak euskarazko
kulturgintzaren transmisioa
eta sustapena bermatzeko?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Ikusgela

42 ATZEKO ATETIK

Naroa Jaio Jaio

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

KULTURA ETA HEZKUNTZA POLITIKA SAILA

Hezkuntza Sailak eta
Kultura eta Hezkuntza Politika
Sailak (Hezkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



zerbitzua eta
lana euskaraz



Freskotasuna hasieran eta amaieran

editoriala

GELAKO JARDUNAZ GAIN, HEZKUNTZAZ
ETA IRAKASLEEN JARDUNEAN
ERAGITEN DUTEN GAIEZ ERE SOLASTEA
EZ DAGO SOBERAN, PRESTATUTA ETA
LANKIDETZAN, ETA ERAIKITZEKO
ESPIRITUAREKIN.



U rte berri bakoitza desiorik onenak opatzeko aroa izaten da, eta baita erronkak eta helburuak jartzeko unea ere. Ikasturte berriarekin antzekoa gertatzen da; udako etenaren ondoren, haurrak fresko gelaratzen dira, gutxiago edo gehiago hazita, bizipen berriekin. Irakasleak ere fresko, gela elementu eta material berriekin atonduta, ikasle taldearekin proposamen eta proiektu berriak gauzatzeko gogoz.

Freskotasunak zenbat irauten duen da gakoa, pandemiak azken ikasturte bietan nekea ekarri baitu. Aurten, ordea, musukorik gabe eta neuririk gabe, arinago sentitzeko aukera dago, gelako jardun pedagogikoan murgiltzea errazago izango delarik. Eta gelakoak ez direnatan ere bai. Izan ere, irakasleen jardunean eragiten duten hainbat kontu pil-pilean dira. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Hezkuntza Legea ikasturte honetan onartzeko asmoa du Eusko Jaurlaritzak. Orain ekarpenak egiteko garaia da eta eragileez gain, zergatik ez irakasleek ere horretaz hitz egin, iritzia eman eta partekatu. Eztabaida politikoaren eta hezkuntza komunitatearen arteko lotura egiten asmatu beharko litzateke, bi munduak gerturatzen, bietako taupadak erritmo berean jartzen.

Iparraldean Euskararen Erakunde Publikoa Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin harremanetan da sare publikoan zein giristinoan euskara hutsezko gelak irekitzeko eta azterketak euskaraz egiteko aukera berma dadin eskatzeko. Biak ala biak irakasleei eragiten dieten gaiak. Hegoaldean curriculum berriaren ezarpenak ere aldaketak dakartza lan egiteko moduan, beraz, irakasleen jardunean. Lan eskaintza publikoak ere asko eragiten du irakasleengan, batez ere proba horiek egin behar dituztenengan, eta ikasturte honetan izango dira.

Irakasleei eragiten dieten gaiak diren heinean, heldu egin behar zaie, ez dezatela dena besteez erabaki. Dabilenari ere badagokio. Eramangarriagoa da aipatu kontuak ikasturte hasierako freskotasun horrekin hartzea, horietaz solastea, hausnartzea eta partekatzea. Formazioa eta lankidetzak dira horretarako tresna. Etengabeko prestakuntzak ahalduzko aukera ematen du, egunerokoan seguruago sentitzeko bidea. Lankidetzak aberastu egiten gaitu, konfiantza areagotzen du eta bidea errazten du. Horrela errazagoa da eraikitzea, espiritu baikorra izatea eta freskotasuna mantentzea ikasturte amaiera arte. Saia gaitezen.

“Euskal hezkuntzagintza bati buruz solas egitea dagokigu, non gaurko oinarrietatik bultzatuko den —bultzatzen ari garen— hezkuntza euskaldun, publiko, burujabe eta feminista bateranzko prozesua”

Nora Salbotx

HILEKO IRUDIA





0-6 ETAPAKO 8. PROMOZIOKO IKASLEEK DIPLOMA JASO DUTE

0-6 etapako aditu titulua jaso dute 35 hezitzailek **Hik Hasiren** eskutik, Usurbilen egindako ekitaldian. Lagunartean eta festa giroan banatu zituzten diplomak formazioaren koordinatzaile pedagogiko izan den Kristina Goñik, Xabier Tapia psikologo eta formazio-ko irakasleak eta Mikel Agirrezabala **Hik Hasiko** formazio arduradunak. Bi urtetan zehar zaintzan eta pedagogia eraldatzaileetan espezializatutako formazioa jaso dute haur txikienekin aritzen diren hezitzaileek. Lehenengo urtean zaintzaren garrantziaz jabetzeko eta arlo horretan ahalduntzeko aukera izan dute, eta bigarren urtean gaur egungo pedagogia eraldatzaileak ezagutzeko eta horietan sakontzeko aukera eduki dute. Aurrez aurreko formazioaren balioa, taldean sortutako konfiantza, edukien balioa eta jaso duten zaintza azpimarratu dituzte parte-hartzaileek.

Argazkia: Hik Hasi

Usurbilen, 2022ko irailaren 17an

HIZPIDE IZAN DA

AURPEGIAK BISTAN HASI DUGU IKASTURTEA

Ikasgelan eta patioan musukorik ez, eta burbuila-talderik ez. Begiak baino gehiago ikusten dizkiote elkarri ikasturte hasieratik Euskal Herriko ikasleek eta irakasleek: aurpegia bistan, begiez gain, aurpegi osoak ere hitz egiten du orain. Ahotsak keinuak ditu lagun. Eskola garraioa da salbuespen bakarra: autobusean ibiltzeko nahitaezkoa baita musukoaren erabilera. COVID-19aren aurkako prebentzio neurri berezirik gabe hasi dugu 2022-2023 ikasturtea. Horrelaxe amaitzea nahiko genuke, pandemia behin betiko gainditu dugunaren seinale.



HAINBAT URTEURREN OSPATU DITUZTE

Oinherri elkartearen 10. urteurrena ospatu zuten joan den irailaren 30ean Ozaetako Garaion sorgingunean, Oinherri(a) eginda. Irri, kantu, dantza eta amets landaketa ikuskizuna izan zen Porrotxen eskutik eta Beira taldeak egin duen Oinherriren kantuen estreinaldia egin ondotik, Olatz Salvadorren kontzertua entzun ahal izan zuten bertaratu zirenek.

Bestalde, UEUK mende erdia bete duela ospatu zuten irailaren 21ean Bilboko Kafe Antzokian. Bazkideak eta unibertsitateko, erakunde publikoetako, euskalgintzako eta kulturgintzako kideak izan ziren bertan. Egindako ibilbideaz harro, elkarlanean ametsak gauzatzen jarraitzeko indarra eman die urteurrenak baina, horretarako, aitortza eta baliabideak behar dituztela aldarrikatu dute.

Eta IKAS, Euskal Pedagogia Zerbitzuak 25. urteurrenaren harira antolatu dituen ekimenen barruan, *Ikasmateriala hizkuntza gutxituetan eta hizkuntza politikak* jardunaldia izan zen Baionan urriaren 1ean.

SEGREGAZIORI ERANTZUTEKO GOGOETA-SAIOA EGIN DU EUSKO IKASKUNTZAK

Hezkuntza Sailak eta Eusko Ikaskuntzak lan-jardunaldia egin zuten irailaren 17an Gasteizen *Askotariko segregazioari nola egin aurre hezkuntza sistematik?* izenburupean. Segregazioaren aurrean hezkuntza sistemak izan behar duen zereginari buruzko hausnarketa partekatua egin zuten bertan bildutakoek.

NAFARROAKO 0-3 ZIKLORAKO ITUNA SINATU DUTE ALDERDI POLITIKOEK

Eskaintza publikoa, integrala, doakoa eta unibertsala bermatzea da sinatu duten itunaren helburua PSNk, Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Dugu-k eta Izquierda-Ezkerrak esan dutenez. Nafarroako 2023ko aurrekontuen aurreproiektuan 4,3 milioi euro bideratuko dituzte udalen eta Nafarroako Gobernuaren haur eskoletako langileen soldatak berdintzeko eta hezkuntza laguntzarako ehun jardunaldi osatzeko adina langile hartzeko. Nafarroako 0-3 plataformako bozemailea den Eider Gardek adierazi du, balorazio "gazi-goza" egiten dutela eta egokiagoa izango litzatekeela hobekuntza horiek legez arautzea. Ikasturte hasieran, mobilizazioekin jarraituko zutela iragarri zuen 0-3 plataformak.

HIZPIDE IZANGO DA

‘HIZKETAN HASI EZINIK’ JARDUNALDIAK

Hik Hasik Haur Hezkuntzako jardunaldiak antolatu ditu datorren azaroaren 25en eta 26ean. Barakaldoko BECen eta Donostian izango dira, hurrenez hurren, eta *Hizketan hasi ezinik* izango dute izenburu. Haurrak gero eta beranduago hasten dira hizketan helduok eskaitzen dizkiegun ahoko komunikazioa eta interakzioa gero eta urriagoak direlako. Berandutze horrek ondorioak izan ditzake haurren hizketarako gaitasunean, pentsamenduaren eraikuntzan eta garapen integralean. Hainbat adituren laguntzaz galdera hauek erantzuten saiatuko gara: zergatik ari da berandutzen hizketa? Berandutze horrek zer ondorio ditu haurren garapenean? Zer arrisku izan ditzake haurrekiko interakzioa eta komunikazioa gutxitzeak? Zer egin dezakegu hezitzaileok hizketaren berandutzea saihesteko? Urriaren 14an zabalduko da matrikulazio epea. Izen-ematea eta informazio gehiago: www.hikhasi.eus.



EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMARI BURUZKO FOROAK

Eusko Ikaskuntzak antolatuta, Euskal Hezkuntza Sistemaren etorkizuna aztertuko dute profesional eta eragileek Iparraldean, urriaren 15ean, eta Nafarroan, urriaren 22an. Eremu desberdinetako pertsonak Euskal Hezkuntza Sistemaren agertoki desiragarriak eta etorkizuneko lehentasunak elkarrekin identifikatzea da helburua, eta esparru partekatu baterako oinarriak finkatzea.

Oinarrizko galdera bat izango du abiapuntu: zer gizarte-eredu nahi dugu? Eta, horretarako, zer norabide eman behar diogu hezkuntzari? Informazio gehiago eta izen-ematea: www.eusko-ikaskuntza.eus.

MINISTROAK BREBETA EUSKARAZ EGITEKO ESKUBIDEAZ ERABAKIKO DU

Pap Ndiaye Frantziako Hezkuntza ministroak datozen asteetan erabakiko du Brebeta euskaraz egiteko eskubideari buruz. Parisen izandako bilkuran “jarrera aldaketa” sumatu zuten Euskararen Erakunde Publikoko ordezkariak eta Ipar Euskal Herriko parlamentariak eta “inpresio onarekin” atera ziren irailaren 14an izandako bileratik. Bi gai nagusi izan zituzten hizketagai: euskara hutsean ari diren ikasgelen irekitzea sare publikoan eta pribatuan, eta azterketak euskaraz egiteko eskubidea.





Lehen Hezkuntza eraldatzen hasi ginen, hasi ziren, hasi gara, hasi dira, hasiko gara, hasiko dira... denetarik dago. Euskal Herriko ikastetxe asko curriculum dekretu berria etorri aurretik ari ziren aldaketak egiten, beste askok aitzakia gisa baliatuko dute orain eta beste zenbaitentzat geroxeago izango da momentu egokia. Edonola ere, eraldaketaren gorpila mugimenduan dago Lehen Hezkuntzan. Hik Hasi Udako Topaketetan ikastaro berezia antolatu zen gai horren bueltan Hezkuntza Sailarekin batera eta han esandakoak bildu dira hurrengo orrialdeetan. Ikasturte berriarekin batera, Hik Hasiren bi urteko formazio berria ere abiatu da, Lehen Hezkuntzako irakasle talde gogotsu batekin. Berrikuntza pedagogikoak ez du etenik. Zientziak, ebidentziek eta esperientziak ezagutza berriak eskaini ahala, hausnartzen eta partekatzen jarraitzera bultzatzen gaitu.

GAIA: ERALDAKETAREN GURPILEAN

Lehen Hezkuntzan

Hik Hasiren Udako Topaketa Pedagogikoetan fokua Lehen Hezkuntzaren eraldaketan jarria zuen ikastaroa burutu zen uztailen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin elkarlanean. Curriculum berriak ekarriko dituen aldaketak aurreikusita eta Haur Hezkuntzako paradigma berrian murgildutako haurrak Lehen Hezkuntzara iristen ari direla jakitun, hurrengo etapek ere egokitu eta eraldatu beharra dutela argi ikusten da. Non gauden, nora joan nahi dugun eta bidea nola egin nahi dugun hausnartzeko eta partekatzeko aukera eman zuen ikastaroak, ahaztu gabe, Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuordeak hasierako hitzartzean esan zuen moduan, ez garela zerotik hasten: “Aspaldi hasi genuen eraldaketarako bidea, egindakoa aintzat hartu behar dugu eta berrikuntzarekin jarraitu”.

Garbi dago eraldaketak ez direla egun batetik bestera gauzatzen, prozesu bat direla eta ibilbide bat egin beharra dagoela. Birginia Pozo Berritzegune Nagusiko zuzendariak azpimarratu zuen eraldaketek ekintza dakartela, “ekintzarik eta planifikaziorik ez baldin badago,

ez dago eraldaketarik. Aldagai askok eragiten dute eraldaketan, eta egiten den aldaketa txikia izanagatik ere, eragiten du eta transferigarria da”. Pozori garrantzitsua iruditzen zaio eraldaketaren faseak identifikatzea eta diseinatzea, “bestela galtzeko arriskua baitago. Planifikazioan diagnostikoa egiten da, ondoren ekintzak egiten hasi eta gero berriro diagnostikora bideratu. Ibilbide zirkularra du. Eta garrantzitsuena: eraldaketaren arrazoia eta helburua zehaztea, bidean gal ez gaitezen”.

Aldaketa guztien aurrean erresistentziak sortzen direla ere gogorarazi zuen Pozok: “Beti daude aldekoak eta kontrakoak eta bi sentimenduak edo ikuspegiak orekatzeari lortu behar dugu, dena ez delako oso polita edota oso itsusia. Erresistentzia sortzen duten aldagai ugari daude: eraldaketa mehatxu gisa ikustea; antsietatea sorraraztea; talde eragilearekiko konfiantza falta; kultura instituzionalaren beldur izatea; ziurgabetasuna; deserosotasuna; aldatzeko premiarik ez sentitzea; ezartzeko modua ez gustatzea; eraldaketarako gai ez sentitzea eta abar”. Erresistentzia horiek gutxitzeko hainbat estrate-

gia proposatu zituen Berritzegune Nagusiko zuzendariak, besteak beste: irakasleei zer egin behar duten labur esatea, eginbeharrekoak gehitu gabe; irakasleen arteko interakzio aukerak piztea; ondo komunikatzea; programatzea eta epe batzuk ezartzea; lider eraginkorra izatea; eta komunitate sentimendua sortzeko ahalegina egitea.

Aldaketak eta zehaztapenak

Curriculum berriak konpetentzietan oinarritutako ikaslearen irteera profila definitzen du, eta behin hori definituta, funtsezkoa da hezitzaileek irteera profila ongi ezagutzea ikaslearen garapenean bidaide egokiak izan daitezen irakasleak eurak. Beraz, ongi ezagutu behar dira funtsezko konpetentziak, horien deskribatzaile operatiboak, konpetentzia espezifikokoak, ebaluazio irizpideak eta oinarritzko jakintzak.

Ikas egoeratan oinarrituta lan egin nahi bada, Pozok ezinbestekotzat jo zuen lau ardatz kontuan izatea: “Haurra-ikaslea prozesuaren erdigunean jartzea; curriculumaren printzipioak kontuan hartzea; konpetentzietan oinarritutako ikuspegi batekin, oinarritzko ezagutzak barneratzeko, aktibatze eta erabiltzeko diseinatuta egotea; eta testuinguruan kokatua izatea, esanguratsua eta integratzailea”.

Era berean, eraldaketek aurrera egiteko beste bi gako ere aipatu zituen: ikastetxeen autonomia eta irakasle eta hezitzaileen ahalduntzea. “Ikastetxeen autonomia eduki behar dute kudeaketarako, ikuspegi pedagogikoa hautatzeko, hezkuntza proiektua garatzeko, hezkuntza komunitatearen parte-hartzea bermatzeko eta curriculum proiektuak garatzeko —taldeak eta ikasgaiak malgutasunez antolatze eta aniztasunari erantzuteko—”. Irakasle eta hezitzaileen ahalduntzeari dagokionez, Pozoren iritziz, “autonomia, autoeraginkortasuna eta lankidetzak dira ahalduntzeko giltza”.

Ibilbide hori guztia egiteko etengabeko formazioa beharrezkoa da, eta horretan ahalegin handia egingo dutela gaineratu zuen Pozok. “Formazio mota desberdinak bateratzea garrantzitsua iruditzen zaigu, jasangarria izan dadin. Eta baita prestakuntza eskolan bertan taldean

jasotzea ere”. Hemendik aurrera ikastetxeetan berrikuntza arduraduna eta mentore digitala izango dira eta biak elkarrekin arituko dira eraldaketa bideratzen.

Egindakotik ikasi eta segi

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko Aritz Larreta Matematika arloko sortzaileak eta Amaia Artolazabal Lehen Hezkuntzako Curriculum arduradunak Pozoren esanak osatu zituzten Udako Topaketen ikastaroan. Haien iritziz, curriculum berriak konpetentziak ikaslearen irteera profilaren zerbitzura jartzeko aukera ematen du. Baita konpetentzien hezkuntzan sakontzekoa parada ere. Eta azkenik, Lehen Hezkuntzaren argazki argiagoa egiteko balio du, “etapari osotasunean modu ordenatuan begiratzeko aukera”. Abantaila horien aurrean kezka bat ere azaldu zuten: “Euskal curriculumaren zaintza edo ardura ez da hain garbi geratzen. Ikastoletan erronka hori geure egin dugu eta eutsi egingo diogu”.

1996an konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren pedagogia plan nazionala egitea adostu zuten ikastolek, eta geroztik ibilbide berritzaile eta emankorra egin dute. “Ikastoletan eraldaketa bi bidetatik etorri zen: batetik ikasmaterialgintzatik eta irakasleen prestakuntzatik, eta bestetik erreferenteen mintegietatik”, dio Larretak. DBHn ikaslearen irteera profila zehaztu zuten eta horren zerbitzurako materiala sortu: *Eki*. Haur Hezkuntzan 0-6 markoa sortu zuten haurraren ezaugarriak zehaztuz eta ezaugarri horiek garatzeko behar diren testuingurua, espazioa, denbora, heldu mota... finkatuz. Bi horien artean dago Lehen Hezkuntza. Lehen zikloan (1., 2. eta 3. mailan) Haur Hezkuntzan landutakoaren jarraipena egin zen, continuum bat delako, eta *Kimu* materiala sortu dute. Bigarren zikloan (4., 5. eta 6. mailan) DBHko *Ekiren* planteamendua zabaldu dute. “Materiala eraldaketan laguntzeko sortu da, ez oztopatze, eta halaxe baloratu dute erabili duten irakasleek. Irakasleak baliatu dezake materiala behar duen bezala, eta ez materialak irakaslea”, gaineratu zuen Larretak. Lehen Hezkuntzako materialak ikas-egoerak eskaintzen ditu, artikulazio curricular batekin, betiere norberaren testuingurura ekartzeko eta egokitzeko. Fitxa bilduma edo testuinguruez haragoko beste elementu batzuk ditu: jolasen gida,

“Formazioak bateratzea garrantzitsua iruditzen zaigu, jasangarria izan dadin”

Birginia Pozo, Berritzegune Nagusiko zuzendaria

GAIA: LEHEN HEZKUNTZA ERALDATZEN



Hik Hasi Udako Topaketetako ikastaroan, mahai-inguruan Birginia Pozo, Amaia Artolazabal, Aritz Larreta eta Mikel Agirrezabala.

material manipulatio ugari, desafio txartelak, obra literarioak...

Materialarekin batera erreferenteen mintegiak ere beharrezkotzat jo dituzte ikastoletako irakasleek eta eraldaketaren ikur bilakatu dira; *Izan* HHn eta *Egin* LHn. “Erreferenteen mintegietan ikastoletako berrikuntza pedagogikoko arduradunak elkartzen dira eta lanketa gogoetatsuak egiten dituzte”, zehaztu zuen Artolazabalek. “Lanketa horiek norberak bere ikastolan praktikan jartzen ditu eta ondoren berriro ere mintegira eraman, han partekatzeke. Helburua praktika gogoetatsuak bideratzea da, ikastoletan hartu behar dituzten erabakietan laguntzea, irakasleen rolaz hausnartzea eta partekatzea. Baita haurra erdigunera eramate horretan haurrari nola begiratu aztertzea ere, horren baitakoa izango baita esku-hartzea”. Azken batean, erreferenteen mintegian

hainbat alderdi lantzen dituzte: umearen continuum-a ikusi eta etapen arteko koordinazioa gauzatu; ikastolen arteko harremana estutu; hausnarketa pedagogikorako laguntza eman; eta kezkak, galderak eta erantzun posibleak elkarrekin partekatu.

Eraldaketak poliki-poliki egiten dira, bidean erabakiak hartuz, eta Artolazabalek zioen modura, “dabilen herriari goroldiorik ez, baina ibili zoroan ere ez”. Eraldaketaren ibilbidean giltzarri diren lau gako ikusi dituzte: pertsona eredu edo ikaslearen profila zehaztea, eraldaketaren ibilbidea eta helmuga ezartzen dituelako; lidergo pedagogiko partekatua izatea; irakaslearen profila ere zehaztea, hezi nahi diren pertsona ereduarekin koherentea izan dadin; eta praktika gogoetatsua egitea maila guztietan, egindakoaz hausnartuz, pentsatuz eta hortik hurrengo urratsak adostuz.

Eraldaketarako giltzarriak:

- Eraldaketaren arrazoiak eta helburua zehaztea
- Ikasleen irteera profila eta irakasleen profila
- Konpetentziak ezagutzea
- Irakasleen ahalduntzea
- Ikastetxeen autonomia
- Etengabeko formazioa
- Erreferenteen mintegiak
- Ikasmateriala
- Lidergo pedagogiko partekatua
- Praktika gogoetatsua eta partekatua

Etenik gabeko jarduna

Ez dira orain hasi. Curriculum berria ezarri aurretik ere hasiak zeuden baratzea lantzen, proiektuak garatzen, mugimendu autonomoan ibiltzen eta taldean hausnartzen, besteak beste. Ondarroako Zaldupe herri eskola eta Ripolleteko (Bartzelona) El Martinet eskola dira eraldaketaren gurpilean sartuta dauden bi ikastetxe eta Udako Topaketetan aurkeztu zituzten.

Ondarroako Zaldupe herri eskolan Haur Hezkuntzan mugimendu autonomoaren inguruan ekosistema desberdinak sortzen hasi ziren eta lan egiteko modua aldatu zuten. Horixe izan zen Lehen Hezkuntzan ere aldaketak egiten hasteko akuilua. Urtero maila bat aldatuz hastea erabaki zuten eta 2022-23 ikasturtean 3. mailan hasiko dira. Hiru lerroko ikastetxea izaki, maila bakoitzean hiru gelaren ordezkari hiru eremu dituztela esaten dute —Matematikakoa, Hizkuntzakoa eta Zientziakoa— eta eremu horietako bakoitzean bost gune dituzte:

1. Kolektiba jolasa: irakasleen iritziz gunerik garrantzitsuenak da. Goizero bakoitza bere gelara sartu eta ordu erdiz eguneko errutinak, azalpenak eta taldeko ekintzak egiten dituzte. Gero, gune hori arloko eremu bihurtzen da: Hizkuntzako gelan Mintzateka, Matematikakoan Mateteka eta Zientziakoan Zientziateka.
2. Arreta zuzena: irakaslea lauzpabost umerekin geratzen da kolektiban azaldutakoa ulertu dutela ziurtatzeko. “Aniztasuna eta arreta emateko gune perfektua da”, Amaia Zabaleta ikasketa buruaren esanetan.
3. Lan txokoa: ikasleak bakarrik aritzen dira lanean. Metakognizioaren unea izaten da: zer ikasi duten, zertarako, nola... hausnartzen dute.
4. Ludikoa: eremu bakoitzean bi edo hiru egon daitezke. Mintzatekan liburutegia, sinbolikoa, txotxongiloa, antzerkia... Matetekan aroztegia, eraikuntzak, denda... Zientziatekan mediku kontsulta, albaitari kontsulta... “Beraien interesetatik sortutako proiektuak edo ikas egoerak lantzen dira eta ez dira ludiko hutsak, zerbait ikasteko helburuarekin prestatuta daude”, azaldu zuen Josebe Azpiri zuzendariak.

5. Manipulatiboa: material manipulatioarekin betetako gunea da.

Eraldaketa honekin batera, eskolako bizitzaren parte garrantzitsu bilakatu diren hainbat osagai dituzte Zaldupen: naturagunea, gela bakoitzeko ordezkari banarekin osatutako asanblada, eskola jasangarria lortzeko gela bakoitzeko “eko ordezkari” banarekin osatutako batzordea, guraso elkarteak, ikas komunitatea, Erasmus +... Komunitatea osatzen laguntzen dieten osagaiak dira, Azpirik dioen bezala, “eraldaketa komunitatearekin egin behar baituzu, beraiekin, ez beraientzat”.

El Martinet-eko hausnarketak

Bartzelonako Ripollet herrian eskola berri bat sortzeko aukera izan zuten duela 19 urte eta geroztik hausnarketa kolektiboan murgilduta daude. Eskola hiru ardatzen gainean sortu zutela dio Meritxell Bonas El Martineteko irakasleak: etika —asmoa, intentzioa, erabakiak—, estetika —erabaki edo intentzio horiei ematen zaien forma— eta politika —eskola ikusgarri egin eta proiektu publiko bihurtzea eta eskolaren konpromiso politikoa ikusaraztea—.

Urteetako hausnarketan sortu zaizkien hainbat galdera eta gogoeta partekatu zituen Bonasek Hik Hasiren ikas-taroan, eraldaketarako akuilu modura:

“Eraldaketa komunitatearekin egin behar da; beraiekin, ez beraientzat”

Josebe Azpiri, Zaldupe herri eskolako zuzendaria

GAIA: LEHEN HEZKUNTZA ERALDATZEN



- Nola sortu daitezke ikas egoerak?
- Ikas egoerak sortzeak harreman egoerak sortzea dakar ezinbestean. Beraz, nola sortzen ditugu harremanetan oinarritutako ikas egoerak?
- Nola lortu ikaskuntza guztien zerbitzura jartzea ikasketa indibiduala izan gabe?
- Nola lortu eskola leku atsegina izatea? Zer egin eskola leku lasaia, eroso eta atsegina gain, aktiboa, kritikoa eta zorrotza izan dadin?
- Nola lortu konplazentzia edo guztien ongizatea?
- Irakaslearen edo hezitzailearen lekuan jarrita, nola bilakatu taldea ikaskuntza-talde?
- Nola lagundu diezaiekegu ikasleei eurek dituzten galderei erantzunak bilatzen? Zein estrategia erabili ditzakegu?
- Zer egin dezakegu ikasleek oraindik egin ez dituzten galderak egin ditzaten?
- Nola definitzen gara irakasle talde gisa? Zer daukagu komunean?
- Nola eraikitzen da ezagutza kolektiboki?
- Nola ikasten dugu elkarrekin pentsatzen?

Azken batean, galdera horiek norabide bat marrazten dute: elkarrekin ikasteko leku bat eraikitzea.

Ikuspegi aldaketak harreman aldaketa dakar

Alvaro Beñaran psikomotrizista eta pedagogoa hezkuntza eta pedagogia metodo berriek harreman mota berriak dakartzatela agerrarazi zuen ikastaroan emandako hitzaldian. Eskola tradizionalak harreman sozial mota bat zeukan: irakaslearen ekintza ikaslearengan. Hezkuntza metodo berriek, berriz, haurra erdigunean jartzera jo dute, eta horrek harremanak aldarazi ditu. Hartu-eman horietako protagonisten ezaugarriak aletu zituen Beñaranek.

- Haur aktiboa
- Heldu aktiboa
- Pedagogia aktiboa

“19 urte daramatzagu hausnarketa kolektiboan murgilduta”

Meritxell Bonas, El Martineteko irakaslea



“Eskolaren funtzioa erabakitzea
hautu ideologikoa da:
hezi egin nahi dugu ala ez?”

ELKARRIZKETA:

ANTONI

ZABALA I

VIDIELLA

PEDAGOGOA ETA IDAZLEA

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua da Antoni Zabala i Vidiella, eta Prestakuntzarako Baliabideen eta Ikerketaren Institutuko (IRIF) zuzendaria. 'Guix' aldizkariaren, Hezkuntza Berrikuntzarako 'Aula' aldizkariaren eta beste hainbat proiekturen sortzaileetako bat da, eta liburu ugari idatzi ditu. Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Ministerioari, Andorrako Gobernuari, Madrilgo Hezkuntza Ministerioari eta Espainiako Estatuko beste administrazio

batzuei aholku eman izan die curriculum diseinuak eta irakasleen prestakuntza planak prestatzeko. Berritzeguneek ekainean curriculumaren gainean antolatutako jardunaldietan, hitzaldi bat eman zuen eta, Begoña Burgoa Berritzeguneko Curriculumeko Talde Iraunkorreko kideak gidatuta, konpetentzietan oinarritutako irakaskuntzak dakarren eraldaketaz eta, oro har, eraldaketak egiteko zailtasunez eta aukerez aritu zen.



Curriculum berria ezarriko da Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan ikasturte honetan, eta, besteak beste, konpetentzietan oinarritutako irakaskuntzari emango zaio indarra. Zuk 2007an argitaratu zenuen *11 ideas clave. Cómo aprender y enseñar competencias (11 ideia gako. Nola ikasi eta irakatsi konpetentziak)* liburua. Hainbeste urte behar al dira aldaketak egiteko?

Zenbat denbora behar da, zuen ustez, errekuntzan oinarritutako autotik elektrizitatean eta elektronikari oinarritutakora pasatzeko? Eta aldaketa hori gertatzeko, zer beste aldaketa gertatu behar dira? Erraza da egin behar diren aldaketak zein diren paperean idaztea; eraldaketa horiek gertatzeko behar diren bitartekoak jartzea da zaila.

1990ean, LOGSE legeak aldaketa ekarri zuen Espainiako Estatuan; diktaduratik zetorren irakaskuntzari buelta eman zitzaion, eta eskolaren helburua pertsonen prestakuntza integrala zela idatzi zen, hau da, eskolaren funtzioa ez zela ezagutzak ikastea soilik, baizik eta bizitzarako gaitasunak, jarrerak, prozedurak,

kontzeptuak... jasotzea.

Garai hartarako, aldaketa oso garrantzitsua izan zen, baina ez zuen kontuan izan eraldaketa horrek zer zekarren berarekin. Ez ziren kontziente izan errekuntzan oinarritutako autotik auto elektriko-elektronikora pasatzeak zekarrenaz.

Horrez gain, denok oso barneratuta daukagun ideia bat dago azpian: Haur Hezkuntzaren funtzioa Lehen Hezkuntzarako prestatzea dela, Lehen Hezkuntzarena Bigarren Hezkuntzarako prestatzea, Bigarren Hezkuntzan Batxilergorako prestatzen dela eta, Batxilergoan, selektibitateko proba egiteko. Eta ideia horrek ondorioak ditu irakaskuntza jardueran. 90eko curriculumean, modu esplizituan esaten da derri gorrezko hezkuntzaren amaieran ikasleek gai izan behar dutela hainbat komunikazio asmatoko mezuak, ahozkoak zein idatzizkoak, ulertzeko eta sortzeko. Hau da, oinarritzko lau konpetentzia linguistikoak jakin behar dituztela: irakurtzen, idazten, entzuten eta hitz egiten. Eta zergatik ez da hitz egiten irakusten Euskal Herriko, Kataluniako edo Espainia-

ko Estatuko eskoletan? Selektibitatean ez dagoelako ahozko probarik.

Selektibitatea traba gisa ikusten duzu. Ez al duzu ikusten hori aldatzeko modurik?

Bi kontu nagusi daude. Bata, orain dituen baino bitarteko gehiago behar dituela unibertsitateak hautaprobak on bat egiteko, egiten diren probak aldatzea eskatzen duelako. Pertsona batek zer gaitasun dituen jakitea askoz ere zailagoa da ez dakit noren obrarik garrantzitsuenak zein diren galdetzea baino.

Bigarren kontua zera da: unibertsitatearen autonomiaren ideia onartua daukagu eta, beraz, Hezkuntza Ministerioak probak nola egin behar diren esatea ez da gustukoa.

Lobbyak ere hor daude, beste edozein lekutan bezala, eta egiten dena ez ukitzeko presioa egiten dute.

Selektibitatea aldatzeak unibertsitate eremuan lanbide aldaketa ere badakar, zeren gauza bat da ikasgai batzuetako diziplina edukiak irakastea, eta beste bat profesionalak sortzea.

Beraz, hainbat zailtasun daude se-

lektibitatea aldatzeko, baina, halere, aldaketa egin behar da, ezinbestekoa da. Ez ditugu arkitekto onak soilik nahi, hiritar onak izatea ere nahi dugu eta konpromiso soziala edukitzea.

Eraldaketa oztopatu duten faktoreetako bat bitartekoak jarri ez izana dela aipatu duzu. Hemendik aurrera jarriko direla iruditzen al zaizu? Akats bera ez dela egingo, alegia?

Ez gara benetan kontziente eraldaketak zer inplikatzan duen, eta hori ez bada ongi ulertzen, ez dira bitarteko egokiak jarriko. Aldaketak konplexuak dira, eta planifikazioa eskatzen dute. Arazoa da planifikaziorik ez dela egiten edo ez dela ongi egin izan.

Horrez gain, aldaketari diogun erresistentzia ere ez da aintzat hartu izan. Konbentzituta al gaude? Sistemaren aldetik, inbertsio bat egin behar da irakasleak konbentzitzeko, eta baita gizartea ere. Izan ere, askok esaten dute hau guztia oso polita dela, baina guraso askok seme-alabek selektibitatea gainditu dezaten eskatzen digute. Hori helburu bat da, noski, baina hezkuntza integralaz hitz egiten dugunean, hori baino gehiagoz ari gara, eta adierazi egin behar zaie.

Eraldaketa planifikazioaren barruan, zein egiteko edo fase ikusten dituzu?

Lehenengo eta behin, argi eduki behar da erakunde edo sistema baten eraldaketa ez dela erakundearena, baizik eta pertsonena. Ez da sistema aldatzen, pertsonak baizik. Eta pertsonak aldatzeko, beharrezkoa da baldintza batzuk gertatzea, hau da, fase batzuk pasatzea. Lehen fasea da, norbera konbentzituta egotea sistemak aldatu egin behar duela. Bigarren fasea, norbera aldaketa horren protagonista dela pentsatzea, konbentzituta egotea eraldaketaren protagonista izan behar duela norberak. Eta hirugarrenik, trebatzea.

Eraldaketa prozesuak galdera eta zalantza asko sortzen ditu eguneroko praktika profesionalean. Zein

dira oinarrian eduki beharreko erreferenteak edo ideiak, kateatuta ez geratzeko?

Nagusiki bi direla esango nuke. Bata, zein den irakaskuntzaren funtzio soziala eta helburua. Nire ustez —eta hala defendatzen dut nik ere duela 40 urtetik eta aurreko mende-ko pedagogo handiek defendatzen zuten modura—, irakaskuntzaren eta eskolaren funtzioa ikasleen prestakuntza integrala da, heztea.

Nik Matematikako, Fisikako eta Kimikako eskolak ematen nituen Batxilergoan, eta ez nuen pentsatzen hezten ari nintzenik. Nire funtzioa Matematika, Fisika eta Kimika irakastea zen. Gustatzeko moduan irakasten saiatzen nintzen, ikasleek “zein ondo erakusten duen” esan zezaten, baina ez neukan argi nire funtzioa heztea zenik. Haur Hezkuntzako hezitzaileek, “hezitzaileak al zarete?” galdetzen diezunean, “jakina” erantzuten dizute. Lehen Hezkuntzakoei galdetu, eta gehienek “jakina” erantzuten dizute. Bigarren Hezkuntzan galdetu, eta askok zera esan dezakete: “Ez iraindu ni, ni ikasgaiko irakaslea naiz”. Ikasgai bateko irakaslea hezitzailea baino hobe denaren ideia dago horren azpian.

Hezkuntzaren edo eskolaren funtzioa zein den erabakitzea hautu ideologikoa da. Hezi egin nahi dugu ala ez? Bizitzako eremu guztietan trebeak izateko hezi nahi al ditugu neska-mutil euskaldunak eta herritar-rrak? Eremu profesionalean ez ezik, pertsonalean, pertsona artekoan eta sozialean ere hezi nahi al ditugu? Galdera horiek baiezko edo ezezko erantzuna izan dezakete, eztabaidagarria da. Ados egon gaitezke edo ez, baina nazioartean kontrastatua eta oinarritua dago hezkuntzaren funtzioa hezteko ideia.

Eraldaketa, ezagutza zientifikoak dioena da kontuan hartu beharreko bigarren ideia. Hau da, pertsonok nola ikasten dugun. Hori jada ez da eztabaidagarria, zientziak egiaztatutakoa baita. Badakigu pertsonok erritmo eta estilo desberdinetan ikasten dugula eta irakaskuntza pertsonalizatu egin behar dela ikaskuntza egokia izan dadin. Ikasgelan ez ditu-

“Aldaketak konplexuak dira, eta planifikazioa eskatzen dute. Arazoa da planifikaziorik ez dela egiten edo ez dela ongi egin izan”

“Aldaketari diogun erresistentzia ere ez da aintzat hartu izan. Konbentzituta al gaude?”

“Hainbat zailtasun daude selektibitatea aldatzeko, baina, halere, aldaketa egin behar da, ezinbestekoa da”

“Nik Matematikako, Fisikako eta Kimikako eskolak ematen nituen Batxilergoan, eta ez nuen pentsatzen hezten ari nintzenik”

“Irakaskuntzaren eta eskolaren funtzioa ikasleen prestakuntza integrala da, hezteko”



gu 25 edo 30 ikasle, baizik eta Ane, Maddi eta Eneko, bakoitzak bere beharrak ditu, eta hartu behar diren neurri didaktikoek ezagutza zientifikoarekin bat etorri behar dute.

Gaur egun, irteera profila zehaztean, berori lortzeko deskriptoreak zehazten dira, eta baita horiei lotutako kompetentzia espezifikoak ere. Horrek eraldaketa bidean lagundu dezake? Euskarri izan daiteke?

Nik esango nuke teknikoki modu orokorrean esaten dena zehaztea oso ona dela. Irteera profila zehazteak ildo nagusi bat edukitzea dakar, eta horrek erabakiak koherenteak izatea dakar. Abantaila batzuk ditu, teknikoki lagundu diezagukeen tresna baita. Eskolan ekiten dugunean, ikasle bakoitzarekin zer lortu nahi dugun pentsatzen ari gara beti, ideia bat izan ohi dugu. Irteera profilak ideia hori eta berori lortzeko funtsezko kompetentziak zehazten ditu, ikasgai bakoitzean landu beharreko

kompetentzia zehatzak. Beraz, oso tresna ona iruditzen zait, baina baita utopikoa ere.

Zer esan nahi duzu utopikoa dela diozunean?

Helburua bera utopikoa izan daitekeela, medikuntzan bezala. Medikuntzak helburu utopiko bat duelako funtzionatzen du; hau da, medikuntzaren helburua gu inoiz ez hiltzea da, beti sano egotea. Hil ez gaitezen laguntzen digute, baina badakigu hil egingo garela. Hezkuntzan, irteera profilak eta kompetentziek ortzi muga markatzen digute, eta gure helburua da xede horretara ahalik eta gehien hurbiltzea, jakinik inoiz ez garela iritsiko.

Helburu horrekin batera, zientziak eransten diguna daukagu, eta hori ere beste utopia bat da. Zientziaren arabera, behar duena eman behar diogu ikasle bakoitzari. Non bukatzen da ikaskuntzaren pertsonalizatzea? Beti pertsonaliza dezakegu

gehiago, beti ezagut ditzakegu gehiago ikaslea, haren testuingurua eta abar. Non bukatzen da?

Hainbat hamarkada daramatzazu proiektu globalizatzaileak proposatzen kompetentzietan irakasteko tresna gisa. Zer da zuretzat ikuspegi globalizatzailea izatea?

Ikuspegi globalizatzaileak esan nahi du eskolaren ikerketa xedea edo aztergaia errealtatea dela, eta errealtateak arazoak planteatzen dizkigu. Arazoak matematikatik, fisikatik edo hizkuntzatik konpon daitezke, baina aztergaia errealtatea da beti, eta beti abiatzen gara errealtatetik sortutako galderetatik, helburuetatik, gai interesgarrietatik eta abarretatik zerbait konpontzeko edo ebazteko.

Guk denok ikasi genituen zatikiak, denok dakigu zer den bostena, erdia edo herena, eta denok dakigu zatikiak erabiltzen. Nondik hasi zen gure irakaslea zatikiak erakusten? Nondik hasten dira mundu guztiko Lehen Hezkuntzako irakasleak zatikiak irakasten? Tarta batetik — Mallorcan ensaimada izan daiteke, eta Gaztela-Mantxan gazta —.

Denak egoera erreal batetik abiatzen dira, eta, gainera, motibagarria den egoera batetik: tarta bat banatu behar da, ez paper bat. Irakasleak tarta zati berdinetan nola banatu daitekeen galdetuz hasten dira, eta, ikasleen erantzunetatik, hipotesietatik eta iritzietatik abiatuta, hainbat modutan probatuz, azkenean zati berdinetan banatzera iristen dira. Ondoren, irakasleak ondorioa adierazten du: “Zortzi zati berdinetan moztu dugu, eta zati bakoitza zortzirena da; horri matematikan zortzirena deitzen zaio”. Denbora guztian tartaz hitz egiten da, aztergaia tarta da, eta prozesu konstruktibo batetik abiatuta — ikasketa prozesuari buruzko ezagutza zientifikoarekin bat eginez —, kontzeptua eraikitzen iritsi dira denak. Ondoren, tartaren testuingururik ateratzeko ariketak egiten dira, tartarako ez ezik, zati berdinetan banatu nahi den gauzatarako ere balio duela ikusteko. Ariketak egin, memorizatu eta testuinguru desberdinetan aplikatu.

Bi hilabete geroago, irakasleak

zatitzaile komun handiei buruz hitz egin zigun, baina sekuentzia didaktikoa desberdina izan zen. Ez zuen tartarik hartu, eta zera esan zuen: “Zatitzaile komun handia da, entzun mesedez, oso garrantzitsua da, zatitzaile komun handia da...”. Kontzeptua deskribatu zuen, eta behin hori eginda, ariketak egin genituen. Baina inork ez genuen ulertzen zertarako balio zuen. Ez zuen ikasketa prozesuari buruz dugun ezagutza zientifikoa aintzat hartu, eta, gaur egun, Matematika ikasi dutenek salbu, inork ez du ulertzen zertarako balio duen zatitzaile komun handi horrek.

Beraz, ikuspegi globalizatzailea edukitzea errealitatetik abiatzea da; ikuspegi metadiziplinarioa da. Zeren abiapuntu horretatik, tartatik abiatuta adibidez, galdera asko sortzen dira: gustatzen zait ala ez?, nondik dator?, zer osagai behar dira tarta egiteko?, nondik datoz osagai horiek?, nola-koak dira herrialde horiek eta zer egoeratan bizi dira?, nola garraiatzen dira elikagai horiek? eta abar. Ikasgai batetik haragoko galderak sortzen dira, ikuspegia metadiziplinarioa da eta erantzunak aurretiko ezagutzaren arabera dira.

Eta ikuspegi horretatik eratortzen dira proiektu globalizatzaileak.

Hala da. Arazoak dituen errealitate batetik abiatzen dira, zerbait eraikitze edo egiaztatze, eta, egoera erreal batetik abiatuta, hainbat ikasgaitatik datozen askotariko tresna metodologikoak erabiltzen dira. Modu horretara, egindako analisiaren ondoren, errealitatea hobeto ezagutzen dugu.

Hezkuntza berrikuntzarako *Aula al-dizkarian (Aula de Innovación Educativa)* idazten duzu, liburuak idatzi dituzu... Zuk uste duzu benetan gaur egun irakasleek irakurtzen dituztela lanbideari eta prestakuntzari lotutako artikulak eta liburuak?

Zoritxarrez, nik uste dut irakasleen % 5ek baino gutxiagok sinesen dugula etengabe eguneratzea beharrezkoa den lanbide batean ari garela. Liburuarekin eta aldizkariarekin gertatzen den gauza bera

pasatzen da bitarteko digitalekin ere. 35.000 artikulua baino gehiago dugu digitalizatuta, eta horietako askok sarrera libre dute unibertsitateetako irakasleentzat eta hezitzaileentzat.

Baina ulergarria da egoera. Kontuan hartuta zer eredutatik gatozen, beti egon dira gelan zer egin behar dugun gure orde ez erabaki dutenak. Horren ondorioz, pentsamendu aplikatzailea daukagu. Hasteko, beste batzuk erabaki dute irakaskuntzaren eta eskolaren funtzioa zein den, administrazioari adituak. Haiek esaten digute zer irakatsi behar dugun, konpetentzietan oinarrituta irakatsi behar dugula, zein irteera profil lortu behar dugun. Gero, irakatsi behar dugun hori zer mailatan eta zer hiruhilekotan irakatsi behar dugun esaten digun beste aditu kolektibo bat dago; horiek argitaletxeetan daude. Irakasleen ekintza hezitzailea planifikatzen dute. Eta azkenik, gu gaude, besteek esan duten guztia aplikatzen dugunak.

Ez gaituzte pentsamendu estrategikoa izateko trebatu, diagnostikoaz eztabaidatzeko konpetentzia profesionalak falta zaizkigu, eta zer modutan lan egin behar dugun erabakitzeko ere bai. Zatitzaile komun handia irakasten dugunean, zergatik irakasten dugun orain eta ez lehenago edo beranduago galdetzen badigute, ez dakigu erantzuten, “orain tokatzen delako” esaten dugu, edo “beti horrela egin delako”. Baliabideak falta zaizkigu erabaki horiek defendatzeko. Aplikatzaileak izateko hezi gaituzte, eta aplikatzaileak ez du irakurri beharrik.

Zer egin daiteke irakasleek pentsamendu estrategikoa eduki dezaten?

Dantzatzu ikasten da dantzan, eta errezetak erabiliz ere bai. Baina errezetek nutrizionistaren ikuspegia eduki behar dute, eta ez sukaldaria-rena. Hots, zertarako balio duen eta zer zentzu duen jakin behar da, ez aplikatu soilik. Errezetak ulertu egin behar dira, eta testuinguru bakoitzean dagokion moduan aplikatu. Eta aplikatuz eta aplikatuz, praktikatu. Praktikatzeko ezinbestekoa da. Estrategiak eta aplikatzaile handiak izan beharko dugu, gauza biak.

“Hezkuntzaren helburua utopikoa izan daiteke, medikuntzan bezala”

“Ikuspegi globalizatzaileak esan nahi du eskolaren ikerketa xedea edo aztergaia errealitatea dela”

“Proiektu globalizatzaileetan errealitatetik sortutako galderetatik, helburuetatik, gai interesgarrietatik eta abarretatik abiatzen gara zerbait konpontzeko edo ebazteko”

“Betik egon dira gelan zer egin behar dugun gure orde ez erabaki dutenak”

“Aplikatzaile izateko hezi gaituzte, eta aplikatzaileak ez du irakurri beharrik”

ESPERIENTZIAK

SAN FELIX IKASTOLA. ORTUELLA

Bizikidetza eta hezkidetza eskuz esku

Hezkidetza bizikidetzatik bereizi ezin den atal baten modura ulertzen dute Ortuellako San Felix ikastolan, eta bi arlo horiek batera lantzen dituzte. Hezkidetza ikastolako curriculumean modu integralean txertatua dute, eta etapa guztietan lantzen dute gai hori. Pertsonen garapen integrala helmuga, garrantzi berezia ematen diete espazioaren antolaketari eta gatazken konponketari, eta zortzi gidalerrori jarraituta antolatzen dute euren jarduna.

Hezkidetza etengabe lantzen dute Ortuellako San Felix ikastolan. Ikastolako jarduera guztiak hartzen ditu barne arlo horrek, eta ez da tutoretzako orduetara mugatzen. Urte asko daramatzate gaia lantzen, eta horren adierazle da osatu duten Hezkidetza Taldea. San Felix ikastolako Lehen Hezkuntzako irakasleak eta Hezkidetza Taldeko arduradunak dira Marta Osorio eta Rebeca Suañez, eta astero elkartzen dira, gaia nola landuko duten aztertzeko. Ondoren, etapa guztietako irakasleekin biltzen dira, eta, modu horretan, landu beharreko gaiak ikasgela guztietara iritsiko direla ziurtatzen dute. Suañezek azaldu du hezkidetzaren gaiari garrantzi handia eman diotela beti San Felixen: “Gure helburu nagusia pertsonen garapen osoa da. Edukiak lantzea garrantzitsua da curriculumeko helburuak betetzeko, baina, batez ere, pertsonaren garapenari ematen diogu garrantzia, eta bide horretan, funtsezkoa da hezkidetzaren gaia.

Era berean, emozioen lanketari garrantzi handia ematen diogu, eta hezkidetzarekin batera, beste hainbat balio etiko ere lantzen ditugu.

Dena lotua dago”.

Irakasleen, familien eta, oro har, komunitate osoaren inplikazioa erabatekoa da San Felixen. Fami-





liek ikastolako jardueretan parte hartzen dute, eta sarritan emakume ezagunak ikasleentzat erreferente ez direla ikusita, senideak gonbidatzen dituztela azaldu du Suañezek: “Emakume ezagunak aipatzen ditugunean, ez dira ikasleentzat erreferentzia izaten. Pentsatu genuen hemen bertan baditugula amak, amamak edota izekoak, eta horiek gonbida ditzakegula egiten dutena ikastolan kontatzera. Horietako asko animatu dira, eta oso esperientzia polita izan da”.

Hezkidetza eta bizikidetza banaezinak direla uste dute San Felixen, eta batera lantzen dituzte bi gaiak. Arazoak konpontzeari garrantzi handia ematen diotela adierazi du Suañezek: “Arazoren bat baldin badago, egiten ari garena utzi, eta hori konpontzera jotzen dugu. Eskola eteten dugu, berdin dio Matematikako ordua den, Erlijiokoa edo beste edozein ikasgaitakoa. Arazoak unean bertan konpontzen ditugu, tutoretzako orduen zain egon

gabe. Edukiak lantzeko presioaren ondorioz, gatazkak konpondu gabe alde batera uzteko joera izaten da maiz, eta ez gara konturatzen ikasleentzat hori kaltegarria dela”. Bereziki zaintzen dute hori guztia San Felixen. Tarte horiek hartzea eta denbora eskaintzea garrantzitsua baita ikasketa prozesua egokia izan dadin. Bestela, ikasleek ez dute aukerarik izaten lasaitasunez aurrera egiteko. Hauxe dio Osoriok: “Ezinbestekoa da giro ona eta lasaia izatea, eta horri begira, emozioen eta gatazken kudeaketarako espazioak ditugu. Adibidez, ‘Hitz eta pitz’ izeneko gunea. Guretzat, oso garrantzitsua da une batez gelditzea eta zer gertatu den eta nola sentitu diren pentsatzea. ‘Hitz eta pitz’ egoera deserosoak argitzeko gunea da”.

‘Hitz eta pitz’ txoko bat da. Ikastolako solairu bakoitzean duten txoko bat. Banku bat dute, eta ahoaren irudia eta belarriarena dituzte alde banatan. Hitz egiteko, ikasleak

“Gure helburu nagusia pertsonen garapen osoa da. Edukiak lantzea garrantzitsua da curriculumeko helburuak betetzeko, baina, batez ere, pertsonaren garapenari ematen diogu garrantzia, eta bide horretan, funtsezkoa da hezkidetzaren gaia”
Rebeca Suañez, irakaslea

“Ezinbestekoa da giro
ona eta lasaia izatea,
eta horri begira,
emozioen eta
gatazken
kudeaketarako
espazioak ditugu.
Adibidez, ‘Hitz eta pitz’
izeneko gunea”

Marta Osorio, irakaslea

ahoaren aldean jartzen dira, eta entzuteko, berriz, belarriaren aldean. Haurrek eta gaztetxoek txokora joatea eskatu ohi dute gatazkak kudeatzeko eta elkarren arteko arazoak konpontzeko. Suañezek adibide hau jarri du: “Demagun jolasgaraia amaitzean gelara sartu eta arazo bat dutela. Ea ‘Hitz eta pitz’ txokora joan daitezkeen galdetzen digute, eta gelatik ateratzen dira. Guk eskola ordua hasten dugu, haiek arazoa konpontzeko behar duten denbora hartzen dute, eta behin konponduta, sartu egiten dira”.

Osoriok dio ikasleek, normalean, dena euren artean konpontzen dutela: “Gatazkak euren kabuz konpon ditzaten saiatzen gara, eta ondoren, guk esku hartzea beharrezkoa bada, esku hartzen dugu. Baina, normalean, ez da beharrezkoa izaten”.

Espazioen antolaketa

Hezkidetza ardatz hartuta egin dute espazioen eta patioaren antolaketan San Felix ikastolan. Futbolak patioan eta batez ere mutilen artean espazio handia hartzen zuela kontuan hartuta egin zuten hausnarketa. Hala azaldu du Osoriok: “Hasieran, baloia eta futbola ziren protagonistak, batez ere mutilen artean; baina gatazkak sortzen ziren, eta jende asko bazterrean gelditzen zen. Hori ikusita, plano berria egin genuen jolastokirako, eta hainbat gune prestatu genituen: esku pilotan aritzeko gunea, dantzan aritzeko gunea, jolas librerako gunea... Ikasleekin batera eta haien zaletasunak kontuan hartuta antolatu genuen espazioa”.

Dantzako guneak arrakasta handia izan duela aipatu dute Osoriok eta

Zortzi gidalerro

Zortzi puntutan bildu dute San Felix ikastolan hezkidetza lantzeko egiten duten lana:

1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean

Hezkidetzaren lehenengo zutabea da pentsamendu kritikoa, eta ikasgelan berdintasuna lantzeko oinarria. Garrantzi handia ematen diote genero ikuspegia modu kritikoan lantzeari. Horretarako, beharrezkoak dira pentsamendu kritikoa duten irakasleak, eta hezkuntza genero ikuspegitik landu ahal izateko, berebiziko garrantzia ematen diote irakasleen prestakuntzari.

2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista

Hizkuntzaren erabilera ez da neutroa. Hizkuntza ez-sexista erabiltzea genero maskulinoa eta femeninoa ez erabiltzea baino harago doa, eta genero bereizketarik egiten ez duten hizkuntzei ere eragiten die. Bestalde, irudiek komunikatzeko indar handia dute, eta iruditeria kolektiboa eraikitzen laguntzen dute. Beraz, beharrezkoa da horiek ere genero ikuspegitik aztertzea.

3. Emakumeen jakituriaren integrazioa, eta haien ekarpen soziala eta historikoa

Ikasgeletako materialetan eta testuliburuetan, ikusezinak izaten dira emakumeek historian zehar alor guztietan egindako ekarpenak. Androzentrismoak gure kultura menderatu du, eta hutsune handia eragin du emakumeen jardunaren ezagutzan eta emakumeen aintzatespenari dagokionez.

4. Gatazken konponketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez

Elkarbizitzan genero ikuspegia aplikatzea oinarritzat da indarkeria sexistari aurrea hartzeko. Elkarbizitza positiboak errespetuan eta berdintasunezko harremanetan oinarritu behar du. Hezkidetzak harremanetan indarkeria aurreikusteko baliabideak, estrategiak eta ezagutza eskaintzen ditu. Maiz, estereotipoekin bat ez datozen pertsonak zigortu egiten dira, eta eskola jazarpena ere paira dezakete. Berdintasuna eta hezkidetza oinarri hartuta eraikiko ditugu berdintasunean oinarritutako elkarbizitza baketsu eta enpatikoa lortzeko ikastetxeak.

Suañezek. Ikasleen gustuko musikarekin egin zuten kantuen zerrenda, eta oso gustura aritzen dira dantzan mutilak zein neskak. Kanpoan soilik ez, barnean ere aintzat hartzen dute espazioak denek partekatzeke direla, eta horren adibide da Lehen Hezkuntza ere mutilek eta neskek komun bera erabiltzen dutela. Ez dago bereizketarik.


Komunikazioari dagokionez, berriaz, gurasoei gazteleraz zuzentzen zaizkienean, kontu handiz aritzen dira genero bereizketarik ez egiteko, eta, testulibururik erabiltzen ez dutenez, hezkidetzak dute oinarri San Felixen sortzen dituzten materialetan. Horrez gain, gela bakoi-tzean duten liburutegi txikian, beti dute tokia hezkidetzaren gaiarekin lotutako liburuek.

Urte asko daramatzate San Feli-

xen hezkidetzaren gaia lantzen, eta pozik daude emaitzarekin. Hala dio Suañezek: “Hemendik Muskizeko San Juan ikastetxera joaten dira Batxilergoa egitera, eta hango

arduradunak oso gustura daude San Felixeko ikasleek elkarbizitzarako dituzten balioekin. Jatorrak, zentzudunak eta kritikoak dira, eta laguntzeko prest egoten dira beti”.

Patioaren antolaketa



5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa

Lana sexuaren arabera banatzeak desparekotasuna eta diskriminazioa azaleratzen ditu. Hori dela eta, independentzia ekonomikoa landu behar da, independentzia pertsonala eskuratzeko oinarri gisa. Lan munduan dauden desberdintasunak kontuan hartuta, hezkidetzak oreka lortu nahi du, etxeko eremuan eta eremu publikoan.

6. Ikastetxeko espazioak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jardura osagarriak

Ikastetxeetako espazioak mutilek hartu izan dituzte, lehiatzeko jokoetan aritzeko. Harreman berdinezaleagoak bultzatzeko diseinatu dira jolastokiko jarduerak eta espazioaren banaketa, bai eta erabilerak justuagoa egiteko ere. Era berean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jardura osagarriak neskek eta mutilek modu berean partekatzeke moduan proposatu behar dira. Horrek guztiak, besteak beste, ikastetxeko jaialdiak edota inauterietako mozorroak birpentsatzera garamatza. Horietan guztietan, berdintasuna lantzeko eta estereotipoen aurka egiteko ekintzak landu behar dira.

7. Berdintasunezko hezkuntza afektiboa eta sexuala

Sexu hezkuntzak pertsona gisa haztea eta sexuarekiko jarrera positiboa eta arduratsua izatea du helburu. Hala, arduraz jokatzeko laguntzen du, bai nork bere buruarekin eta baita inguruan dituen pertsonekin ere. Hezkuntza sexuala are eraginkorragoa da genero ikuspegitik jorratuz gero. Era berean, eraginkorragoa da familiekin koordinatuta lantzen denean, hau da, etxean eta ikastetxean ahaleginak batzen direnean, eta berdintasunean, osasunean, gozamenen eta pertsona guztiekiko eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako sexu hezkuntza eskaintzen denean.

8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea

Hiru jardura motari buruz ari gara: ikasleak sentsibilizatzeko helburua dutenak, ikastetxean gertatzen diren matxismo eta indarkeria egoerak hautematea helburu dutenak eta, azkenik, ikastetxean indarkeria kasuak hauteman ondoren zuzeneko esku hartzea burutzea helburu dutenak.

EKARPENAK

HAURRAREN AUTONOMIAREN GILTZA

Partaidetza edo lankidetza, autonomiaren giltza 0-3 adin-tartean

Haurraren autonomia sustatzeko gako nagusia haurraren eta hura zaintzen duen helduaren arteko partaidetza eta lankidetza da. Hala diosku EHUKo Bilboko Hezkuntza fakultateko Kalitatezko Haur Hezkuntza taldeak. Egindako behaketetan eta adibide praktikoetan oinarrituta azaltzen dute ideia hori artikulu honetan.

**INGE AXPE, HAIZEA BELZA, GORKA ETXEBARRIA, ANE GURRUTXAGA,
NURIA GALENDE, ELENA HERRAN, JONE SAGASTUI eta ANA ZAMAKONA**
Kalitatezko Haur Hezkuntza taldea. EHUKo Bilboko Hezkuntza Fakultatea

Lankidetzan aritzeak, eragiketa guztietan parte hartzeak, esan nahi du, funtsean, haurrak bere mugimendu propioekin erantzuten diela hezitzaileak aurrez egin dituen eskakizunei edo keinuei.”

Anna Tardos.
La mano de la educadora, 2008,
56. or.

Parte-hartze terminoak dei sozial, ideologiko edo praktiko batean pentsarazten digu. Eragiten diguten gaien aurrean, aktibazioa, konpromisoa edo, gutxienez, erantzukizuna eskatzen du, nahiz eta hasiera batean auzi horiek gure eguneroko bizitzan edo funtzionamenduan funtsezkoak

ez direnik iruditu. Gehienetan, zuzenean ez bada ere, benetan eragiten diguten gaiak izaten dira, edo, gutxienez, haien ondorioak. Gero eta konplexuagoa da gizakia bera, bai eta haren gizarte-ingurunea ere, eta horrek gure eskuetatik at gelditzen diren eta parte hartzen ez dugun auziak agertzea dakar. Gauzak horrela, gure gaitasuna mugatua dela argudiatu daiteke, eta eguneroko intereseko gaiak, askotarikoak.

Ba al du zerikusirik helduen parte-hartze edo lankidetzaren horrek haur txikiaren parte-hartzearekin? Bizitzako lehen hiru urteak espeziearen prototipoaren adina dela ulertzen badugu, gizakiak bizitzan zehar izango dituen gaitasun eta

funtzio guztiak tarte horretan pizten direlako, erantzuna baiezkoa izango da. Baina kontuz, lankidetza partaidetzaren hazia da. Haurrak zaintzaileak hasitako keinuari jarraitzen dionean gertatzen da, zaintzetan harekin lankidetzan arituz. Haurraren bilakaera, haur-gaitasun guztiena bezala, bizitzako lehen urteetan bizi izaniko zortearekin lotuta egongo da. Argi dago haurtxoek edo haur txikiek beren eguneroko bizitzan edozein helduk baino parte-hartze edo lankidetzarako aukera askoz ere mugatuagoa dutela, baina ez dugu uste behar horregatik garrantzi gutxiagokoa denik, bai bere orainaldirako, hemen eta orain, baita parte-hartze horrek prestatzen duen



etorkizun hurbilerako ere. Haurren inguruneak gaitasun hasiberri hori errespetatzen, babesten eta laguntzen badu, helduak zuzentzen dion zereginean esku hartzeko espazioa eta denbora emanaz, hasiera batean, onarpen-, interes- edo lankidetzak-einu txikien bidez erantzungo du, eta hori arreta iraunkor, bere buruaren eta ingurunearen kontzientzia, ikaskuntza autonomo, errespetu, jakin-min, ekimen, nortasun proaktibo eta abar bilakatuko da laster.

Psikogenesiaren sorrera

Baina, nola eta noiz sortzen da hori guztia? Zerk sortzen du? *Giza kumea* mugimendurako prest jaiotzen da, eta erreflexu-sistema konplexu bat du jaiotzen den ingurunean biziraun ahal izateko; aldi berean, bere nerbio-sistema heltzea eragiten du, bere funtzio guztiak pixkanaka abian jarritz, hedatuz eta garatuz. Erreflexu horiek umeari lagundu egiten diote, psikogenesiaren bi baldintza kudeatzen hastean: baldintza organikoak edo gorputzarenak, eta testuinguruko baldintzak edo bizi-ingurunearenak. Espeziearen erreflexu naturalen artean, partaidetzaren edo lankidetzaren gaia hobeto ulertzen lagundu diezaguketenak *animazioaren erreflexua* eta *orientazio-esperimentazioaren erreflexua* dira, biak Pavlovek aurkituak eta

Wallonek (1980) berreskuratuak. Lehenengoak izaki bizidunak eta bizigabeak bereizten laguntzen dio jaioberriari, eta, bereziki, bere kidekoak, haurtxoarentzat erakargarriagoak direnak. Bigarrenak, berriz, hurbileko ingurunera bideratzen du, harekin elkarerraginean aritzeko interesa izatera, haren ezaugarriak ezagutzera eta, aldi berean, bere pentsamendu hasiberria sustraitzera. Horrela, umeak, gainerako animalia-espezieek ez bezala, bereziki heldugabea eta aldi berean plastikoa den bere burmuinari esker, hasieran modu erreflexuan, baina berehala bere borondatez, bere ingurunearekiko interakzioarako mekanismo gero eta eraginkorragoak aktibatzen ditu.

Horrek guztiak psikismoaren sorrera dakar. Baina, zer da psikismoa? Zertan datza? Funtsean, estimulua eta mugimendua hainbat bitartekariaren bidez bereiztea da. Jaioberriaren inguru hurbileko zaindarien haurtxoak behar dituen zaintza eta arreta eskainiko diote. Haurren partehartzea handia edo txikia izango da, helduek eskainitako aukeren arabera. Horren guztiaren ondorioz, haurtxoak bere tonu muskularra garatuko du, eta, horri esker, gero eta doitasun eta oreka handiagoz mugitu ahal izango da, baita geldirik eta adi egon ere, bere sentsazioak edo kanpokoak hautemanez. Hau da, gizaki bihur-

tzeko zeregin itzelarekin hasiko da, eta bere psikogenesi berezia gauzatzeko eta garatzeko funtsezko lanak egiten hasiko da: bizitzeko egokitu zaion une eta testuinguru gizatiar eta fisiko zehatzean haztea, heltzea eta ikastea.

Psikogenesi indibidual bakoitzaren baldintzak —aldi berean organikoak eta testuingurukoak—, hasieratik eta funtsean, haurren ardurapean dauden pertsona helduen eskuetan daude; amaren edo aitaren eskuetan, eta eskolaratze goiztiarreko garai hauetan, baita hezitzaileen eskuetan ere, haurtxoen premiak asetzeaz arduratu behar dutenen eskuetan, hain zuzen. Argi dago mantenugaien azken asimilazioa, loaldi luze eta erlaxatu baten eraginez, haurtxoari eta haren gorputzari dagokiela. Baina horren aurretikoak —elikagaiak umearengana iristea, umeak behar

**Lankidetzak
partaidetzaren hazia
da, haurrak
zaintzaileak hasitako
keinuari jarraitzen
dionean hasten da.**

EKARPENAK: HAURRAREN AUTONOMIAREN GILTZA



duen atsedena hartzea, asebetetzea eta haztea—, nahitaez, helduen ardurak dira haurtzaroaren amaierara arte; helduen jarrera irekiagoa edo itxiagoa izango da haurtxoaren parte-hartzearen aurrean, keinu kooperatibo txikiei adi egongo dira. Zehazki, 0-3 adin-tarteko haur-eskolan, baldintza horiek kudeatzea hezitzaileei dagokie, erreferentziazko hezitzaileari bereziki, eta arreta handiagoa eskatzen diete, haien ardurapeko haurrak ondo ezagutzeak plus bat eskatzen baitu familiaren testuinguruarekin alderatuta.

Haurraren autonomia bultzatzen

Zer gertatzen da, orduan, autonomia goiztiarrarekin? Autonomia ez da absolutua. Heteronomo eta mendeko jaiotzen gara, eta lehen haurtzaroan hazi, heldu eta ikasi egiten dugu, autonomian aurrera egiteko oso bide pertsonal eta partikularra eginez, non aurrerapenak eta atzerapenak, nahiak eta erresistentziak agertuko diren. Autonomia horrek aukera ematen dio haur txikiari bizitzako hirugarren urterako bere burua kontrolatzeko, bere gorputza kudeatzeko eta elkarerraginean aritzeko, bere ingurune fisiko eta humanoarekin modu eraginkorrean jardunez. Baina, nola bultzatzen da autonomia hasiberri hori? Bada, bizitzan gertatzen den guztiarekin bezala, jardunez. Eguneroko jarduera txiki bakoitzean jardunez, laguntzarik gabe eta gustura egiteko gai izan arte. Hau da, partaidetzazko lanki-

detzak autonomia baldintzatzen du. Itxuraz sinplea den baina beti haurraren gaitasunaren muga dagoen gauzatze txiki hori gabe, ez dago autonomia posiblerik esku-hartze goiztiarreko arloetan: beharrezkoak dira zaintzak eta jarduera autonomia, jolas librea barne. Zer forma hartzen ditu partaidetzazko lankidetzak 0-3 adin-tarteko haur-eskolan? Esku-hartzearen eremu bakoitzak bere ezaugarriak ditu? Edo praktikan oso antzekoak dira? Adibide batzuk erabiliko ditugu galdera horiei erantzuten saiatzeko.

Katixa, hoguei hilabeteko umetxoa, bere gelakideekin batera dago jolas-eremuan, autoekin jolasten. Oso gustuko ditu auto txikiak. Hezitzaileak, higiene-gelarako bidean Jurgiren atzetik doala, Katixari esan dio bera izango dela pixoihala aldatzen hurrengoa. Zer dakarkio Katixari hezitzaileak abisua emateak? Bate-tik, bere jolas librea gelditu edo itxi beharko duela jakinarazten dio, beste jarduera bat tartekatuko delako. Bestetik, pixoihala aldatzean jasoko duen harreman intimoaren eta arreta pertsonalizatuaren unea irudikatze-ko aukera ematen dio, baita garbi egoteak sortzen duen ongizatea ere. Abisuak, beraz, espazioan eta denboran psikikoki kokatzen laguntzen dio, bere txanda aurreikusteko aukera ematen dio.

Katixak jolasten jarraitzen duen bitartean, hezitzaileak Jurgirekin bukatu du eta Katixarengana hurbildu da, eta oraingoan higiene-

gunera joateko gonbita egin dio. Badirudi Katixak ez duela interes handirik hezitzaileak esaten dion horretan, eta autoarekin jolasten jarraitu du. Apur bat itxaron ostean, hezitzaileak autoa uzteko leku bat proposatu dio, nahi izanez gero pixoihala aldatu ondoren autoarekin berriro jolasteko. Zergatik hurbildu, proposamena egin eta gertu itxaron? Horrek guztiak umeari bere jarduera ixten, zeregina gogoratzen eta onartzen laguntzen diolako, nahiz eta horretarako denbora pixka bat behar izan. Hezitzaileak haurraren ondoan egoteak agerian uzten ditu zeregina ezinbestekotasuna eta berehalakotasuna. Hezitzaileari bere lana egitea dagokio, haurraren jarrera epaitu gabe, eta, beharrezkoa bada, autoa gordetzeko haurrak gustuko duen leku bat aurkitzen lagunduko dio.

Haurra higiene-gunera abiatzen denean, hezitzaileak atzetik joaten zaio, eta biak jolas-eremutik irteetan, hesia ixten du. Baina, zergatik ez doa haurraren aurretik? Nahiz eta une horretan haurrak aurreko jarduera uzteko gogo handirik ez erakutsi, pixoihalaren aldaketa haurraren beraren erabakia, zeregina eta ardura da. Haurrek hezitzailearekin egon nahi izaten dute, batez ere une pribilegiatu horietan. Katixari agian gertatu zitzaion orduantxe beste zer edo zertan zuela arreta jarrita eta ez zuela garbiketaren beharra sentitu. Eskarmentuz, badaki pozarren itzuliko dela gelara aldaketaren ostean.

Higienegunera heltzean, hezitzaileak eskaileratxoa ateratu du, haurra bere kabuz igo dadin. Garrantzi berezia dauka bere kabuz egin izanak? Bada, bai, Katixa igotzeko gai delako. Gainera, horrela bere presuntasuna adierazten du, eta aldaketa haurrak aukeratutako jarreraren hasiera ahalbidetzen du, jarrera bat inposatu orde. Hezitzaileak, bitartean, eskua eman edo sorbaldari eutsi beharko lioke? Printzipioz ez, haurrak ez duelako laguntza fisikorik behar. Hezitzaileak zutik, aldalekuaren aurrean eta haurraren atzean, bere gertutasunarekin eta bere besoa luzatuz erabat babestuko luke, psikologikoki zein fisikoki, Katixak zoriz oreka



galdu edo txirristatuz gero.

Katixa aldatzeko tokian eseri da, eta eskumako zapatila kendu du. Hezitzaileak eskua luzatuz jaso du. Gero, beste zapatila erantzi beharrean, ingurura begiratu du, eta hezitzaileak, “ikusten dudanez ez duzu beste zapatila kentzeko gogorik” esanez, ezkerrekoa kendu dio. Oraingoan, haurrak eman du lehen urratsa, eta koreografia ezagutzen duela adierazi du horrela. Hezitzailea haurrak egotzi dion egitekorako prestatu da: zapatila jaso, eta bere lekuan utzi. Neskari bestea kentzeko zantzurik ikusten ez zaionez, hezitzaileak kendu dio, eta horren berri eman dio. Zein litzateke horren arrazoia: kapazitate, gogo edo interes falta? Eskumako zapatila erantzi duenez, jakin badakiela erakutsi du, hau da, gai dela. Aldiz, gauza bera bigarrenez egiteko interesik edo gogorik ez duela adierazi du. Hortaz, hezitzaileak jarraitu du. Parte-hartzea ere gertatu da, helduak haurrak utzi dion partea onartu eta osatu duenean.

Orain, Katixa zutik eta hesietara oratuta dago. Hezitzaileak erantzi berri du, pixoihala kendu dio, eta, buelta ematean, haurrak gelara zuzendu du begirada, “han, han!”, esanez. Hezitzaileak bere zeregina eten du, eta erantzun dio: “Bai, hortxe dago utzitako autoa, zure zain. Zurea gorria da, ezta?”. Katixak “bai” erantzun du, eta, ondoren, hezitzaileak hau esan dio:

“Segidan, nahi izanez gero, jarraitu ahalko duzu autoarekin lasterketan”. Benetako elkarriketa. Zer zentzu dauka pixoihalaren aldaketan bertan aldeztasunaz utzitako jostailuaz aritzeak? Bada, neskatoari bere osotasunean eta bere interesetan jarraitzea, une horretan haren interesa ez baitago pixoihala aldatzean, ezta hezitzailearekin partekatutako koreografian ere, jostailuan baizik.

Hezitzaileak, bien arteko begirada hurbila berreskuratzean, pixoihala aldatzen jarraitu du. Baieztatu du erabat garbi dagoela; pixoihala lotu du, eta kamiseta eta prakak prestatu ditu jantzeko. Katixarekin egiten ohi duen bezala, jantzen jarraitu du, goitik behera eta eskumatik ezkerrean. Lehenik, buruaren zuloa hartu, esku biek zabaltu, eta haurrari erakutsi dio. Haurraren erantzuna hurbiltzea denez, burua sartzen lagundu dio. Ostean, eskumako mauka prestatu du, haurrak besoa eroso sartu ahal izateko. Oraingoan, Katixak ezkerreko besoa igo du, hezitzaileak irribarre egin dio, eta, berehala, ezkerreko mauka prestatu dio. Tarte horretan, bien erritmoa ez da bera izan. Zeinek markatu behar du? Bada, ez bata ez besteak, biek baizik; baterako jarduerak, koreografiak, etengabeko egokitzeapena eskatzen duelako. Hala ere, begi bistakoa denez, hezitzaileari dagokio erritmoen harmonia bermatzea.

Prakekin hasi baino lehen, hezitzaileak azken ukitua eman dio kamise-

tari, buru-zuloa, sorbaldak, maukak eta gerria egoki kokatuta daudela baieztatuz. Orain, prakak txanda da. Hezitzaileak eskumako zangoa bildu du, eta erakutsi egin dio, eta haurrak, prest jada, eskumako hanka sartu du. Ostean, ezkerrekoa sartu du. Katixak hanka biak zangoetan sartuta dituela, hezitzailea bere zain gelditu da. Katixak gerriak heldu die prakei, eta, eskumako eskuarekin lehenengo eta ezkerrekoarekin gero, igotzea lortu du. Haurrak zoriz jantzi ditu prakak, ala hezitzaileak bideratu du? Hezitzaileak haurraren ezagutza sakona du, haren erritmo, behar eta interesetara egokitzea ahalbidetzen diona. Duela aste batez hasi zen Katixa gogoz prakak igotzen, eta gaur ere horixe egin du. Pozik dago hezitzaileak eskainitako aukeraz eta berak lortutako emaitzaz.

Behin haurra erabat jantzia, azken ukituen txanda da: den-dena ondo jantzia dagoela egiaztatu eta txukun-txukun jarri, eta haurrari alda-lekutik bere kabuz jaisteko aukera eman. Haurra jolas-eremura bueltatu da, eta hezitzaileak eskuak garbitu ditu.

Partaidetza da gakoa

Partaidetzan oinarritutako pixoihalaren adibidearen azterketa luzea eta zehatza izan da, baina, aldi berean, oso emankorra izan da. Azter dezagun zaintzaren beste une bat.

Iker oso gustura dabil jolas-eremuan jolasten. Hezitzailea, mukiak dituela konturatzean, hurbildu egin zaio, eta aurrez aurre, hauxe diotso: “Iker, mukiak dituzu, paperezko musuzapi baten bila noa sudurra garbi-

Itxuraz sinplea den baina beti haurraren gaitasunaren mugan dagoen gauzatze txiki hori gabe, ez dago autonomia posiblerik esku-hartze goiztiarreko arloetan.



tzeko". Eta bila joan da. Aldiz, goizean sartzean kasualitatez paperezko musuzapia eskuan zuenez, hezitzaileak sudurra garbituko ziola esan, eta garbitu egin dio. Oraingoan, aldiz, bere burua prestatzeko tarte luzeagoa eskaini dio hezitzaileak. Paperezko musuzapiarekin bueltan etorri denean, makurtu egin da lehendabizi, hauraren altueran jarri ahal izateko, eta paperezko musuzapia zabaldu du. Paperezko musuzapia zabalik duen eskua aurreratzeko keinu txikia egin ostean, zain gelditu da, ea Iker hurbiltzen den. Orduantxe hasi da garbitzen ohitura legez, lehenengoz ezkerreko sudur-zuloa, eta, paperezko musuzapiari buelta eman ostean, alde siku bat prestatu eta eskuineko sudur-zuloa, sudur zulo biak batera ixtea eta itotzearen sentsazioa saihesteko. Gehienetan, goiko ezpainaren gainetik bi aldiz pasatu behar izaten da; beraz, berriro ere beste buelta bat eman behar zaio paperezko musuzapiari, ingurua ondo sikatzeko. Behin siku egonda, hezitzaileak azken ukitua eman dio, eta, sudurra ondo garbiturik eta Iker jolastera bueltatzeko prest dagoela baieztatzean, paperezko musuzapia botatzera joan da.

Zaintza txiki hori normalean oso azkar egiten bada ere, hainbat gogoeta esanguratsu sorrazten ditu. Erraza al da haurarentzat beren burua prestatzea sudurra garbitzeko? Hau da, zergatik begiratzan dute beste aldera haurtxo gehienek pape-

rezko musuzapia ikusi bezain laster? Bada, mimatuz egiten ez bada, deserosoa edo mingarria delako. Eta paperezko musuzapia erabat bustirik edo zikin badago bigarren bueltarako? Bada, behar diren beste paperezko musuzapi erabil daitezke, sudurra garbi geratu bitartean. Zintz egiten ikasi behar da 0-3 adin-tartean? Ez. Normalean, 3-6 adin-tartean ikasten da zintz egiten. Putz egitearekin batera, erraz lortzen dute haurrek autonomoki eta taxuz sudurra garbitzea. Bitartean, adierazi bezala egin behar da, sudurraren garbiketa prozesuan haurtxoaren kooperazioa nahita bermatu ahal izateko. Hortik berehala iritsiko da zintz egitera.

Egunerokotasunean kooperazioarekin zeharkako harremana duen beste kezka bat planteatzen da. Hots, zergatik erabili behar da paperezko musuzapia eta ez komuneko papera? Zaintza-mota bakoitzari bere materiala dagokiolako. 0-3 adin-tartea espeziearen prototipoaren adina izanik, adin horretan egiten den guztia eredugarria da, bai orainaldirako, bai etorkizunerako. Busti bezain pronto, komuneko papera desegin egiten da, zaila da hori maneatzea eta koipe-tsua dela ematen du. Zergatik bota behar da paperezko musuzapia haurraren garbiketarekin amaitutakoan? Sudurra garbitzea, nahiz eta zaintza txikia izan, zaintza garrantzitsua da, eta horrekin du zerikusia. Zikinkeria galanta izateaz gain, arduragabetsun handia da paperezko musuzapi

berarekin gelako sudur bat baino gehiago garbitzea, haurraren higie-nearen benetako ikaste-prozesua kolokan jartzen duelako.

Parte-hartzeko aukera zabala dago
Agian, parte-hartzea edo lankidetzia ia ikusezina da jarduera autonomoan eta jolas librean, hezitzailearen esku-hartzea batez ere zeharkakoa delako. Hurrengo adibidean ohartu gaitzke hortaz.

Hamalau hilabeteko haurra da Andere. Azkenaldian, ikasgelara heltzean, ez da jolasten orain arte egiten zuen bezala. Egun batzuetatik hona, izkina batera hurbiltzen da, eta han etzaten da, materiale-tan interesa jarri gabe eta inolako jarduerarik hasi gabe. Hezitzailea haurraren gura hurbildu, eta haren mailara egokituz jolastu beharko luke? Aukera hori oso tentagarria izan daiteke, are gehiago haurrekin jolastea gustuko badugu, baina, aldi berean, kalterako izan daiteke. Zer dela eta? Helduaren jolasaren distirak eta erakargarritasunak haurraren jolas-jarduera hasiberria are gehiago itsutu dezakeelako, desira murriztuz eta ekimena geldiaraziz. Kaltegarria da, haurraren gaitasunaren eta eredu den helduak aurkezten duenaren arteko distantzia hain handia izanda, ezintasun- eta ezigaitasun-sentimendu saihetsezina sortzen baita haurraren.

Andere ondo egokitutako neska da, egunero materialekin jolastu dena, baina bi aste dira uzkuritutik dagoela, agian oso aktiboa eta mugitua den kide berri bat taldera heldu delako. Anderek harengandik aldentzeko joera dauka. Kasu honetan, hezitzaileak jolas-eremu seguru eta babestu batera eraman dezake haurra, eta han bere intereseko materialak aurkeztu. Haurra eta haurraren lehentasunak edota gustuak ondo ezagutuz gero, erraza izango da garai horretan hari erakargarriak zaizkion objektuak ezagutzea. Gonbidapena egitea baino ez litzateke faltako. Haurra aktibatzen baldin bada eta jolasten baldin bada, pentsatzekoa da irtenbideaurkitu dela.

Hurrengo egunean, Andere, bere ama agurtu ostean, katuka joan da

pieza txikiak dauden jolas-eremu-raino, baina, gelditu gabe, gogo-koen duen izkinaraino jarraitu du, eta inguruari jaramonik egin gabe etzan da. Zer egin dezake hezitzaileak Andereren iniziatiba goiztiarra bermatzeko, gune babestu batean ere aktibatzen ez bada? Hasiera batean, hezitzaileak sakonago eta zehaztasun handiagoz itxaron eta behatu dezake. Zer egiten du Anderek jolasten ez dagoen bitartean? Zeri edo nori begiratzen dio? Begiak zabalik mantentzen ditu, edo bere begiradaz zerbait bilatzen du edo zerbaitetan jartzen du arreta? Agian, trantsizio-objektua eskaini beharko litzaioke, eta, hura eskuen artean duelarik, ea ingurunera hurbiltzen den ikusi beharko litzateke. Eta Andereri jolasteko gogo antzematen bazaio baina azkenean animatzen ez bada? Orduan, litekeena da hezitzailearen hurbiltasuna eta arreta behar izatea, zeinak materialen bat eta piezaren bat edo beste eskainiko dizkion. Eta, hala ere, horretarako modurik ez balego? Orduan, behar bezalakoa zaintza-une bat planteatu beharko litzateke.

Azkenik, pixoihal aldaketaren, arreta indibidualizatuaren eta mimoen ostean, Andere berriro ere mugitzen eta jolasten hasi da, eta haren poztasunak, jakin-minak eta inguruko objektuekiko interesak harritu egin gaitu. Ama haren bila etorri denean eta azken egun hauetan Andereri bere jolasean zentratzea kostatu zaiola esan diogunean, hark esan digu duela pare bat aste jakin zuela haurdun dagoela eta neskatoreen edoskitzea eteten saiatzen ari dela.

Ibilbide praktikoa honen bidez, agerian geratu da parte-hartze goiztiarrak kooperazio, zolitasuna eta haur-garapen psikikoan duen garrantzia. Hasierako hausnarketa berreskuratu dugu. Arlo desberdinetako —zaintza txiki eta handietan, eta jarduera autonomo eta jolas librean— parte-hartzeak edo lankidetzak hartzen dituen formak komunak ala berariazkoak dira? Baten bat besteak baino esanguratsuagoa edo eraginkorragoa al da? Parte-hartze egoeren zerrenda bukaezina presta

genezake, baina ezinezkoa litzateke aipatutako galderei edota testu honen irakurtze soilak eragingo litzukeenei erantzun konkretu bat ematea. Izan ere, umetxo bakoitzarentzat parte hartzeko, elkarlanean aritzeko edota jardueraren bat aurrera eramateko aukera, edozein arlotan edo mailatan —hutsala emango balu ere—, urrezkoa da. Urrezkoa haren autonomiaren garapenerako.

Autonomia garatzeko gakoak Piklerren ikuspuntutik

Pikler-en lau printzipioek partaidetzako lankidetzak haurren autonomiaren bilakaeran duen garrantzia maisuki laburtzeko aukera ematen digute:

1. Jarduera autonomoa balio handikoa da, ondo kudeatzen denean haurtxoa gizaki gisa osatzen duelako. Eraikuntza hau autonomia lantzen, gauzatzeko, burutzen eta eguneratzen denean bakarrik da posible; hau da, haurtxoak, gai den neurrian, berari dagozkion eta hezitzaileak egunero prestatzen dituen jardueretan parte hartzen badu eta lankidetzan aritzen bada. Orain, parte-hartzea jolastea da. Hezitzaileak proposatzen, prestatzen, aurkezten eta berrantolatzen dituen objektu, jostailu eta materialekin jolastea, eta taldeak eskatzen duen heinean berriro ordenatzea edota eraldatzea, hezitzaileak haurraren gaitasunean konfiantza handia duelako.
2. *Erreferentziazko* hezitzailearekin garatzen den harreman afektibo pribilegiatua edo lotura profesionala balio handikoa da, baita ere. Harreman hori eraikitzeko, ezinbestekoa da haurtxo bakoitzaren eza-gutza sakona izatea —nahiak, lehentasunak, zailtasunak, joerak, mugak, izaera, etab.— gonbit bakoitzari eta haurtxoaren erantzunari espazioa eta denbora ematea, berdintasunean oinarritutako interakzioa ezartzea, errespetu pertsonala erakustea eta edozein egoera

edo ezusteko onartzea. Zaintza bakoitzak haurtxoaren parte-hartze esanguratsurako aukera erreal anitz ematen ditu. Aukera besterik ez zaio eman behar. Harreman horrek nahiko egonkorra izan behar du, haurraren partetik errefusatzeko, itxaronaldi edo arreta falta puntualen bat gertatzen bada zapuztu ez dadin.

3. Beharrezkoa da haurraren eta ingurunearen kontzientziazioa sustatzea. Zergatik hainbeste iragarpen, abisu, informazio, neurriko deskripzio, benetako erantzun, keinu apropos, ego-kitze, entzute, behaketa, etab.? Haurtxoa, segituan datorrena aurreratzeko aukera izateaz gain, beraren baitan eta bizi behar duen ingurunean ahalik eta modu objektiboenean kokatu dadin. Ez da gutxi! Haurraren gaitasunean konfiantza handia izatea printzipio honetan ere islatzen da.
4. Osasun fisikoa ezinbestekoa da, eta aurreko hiru printzipioen jatorria eta haien eragina da. Osasun goiztiarrera bueltan berriro ere: haurtxo bakoitzak bere buruarekin eta munduarekin duen harremanaren termometroa da osasuna. Haur osasuntsua mundura irekitzen da. Ondo sentitzen ez denean, baztertu eta itxi egingo da. Gustura dagoen haurtxoak ekimena, kuriositatea eta interesa izango du, eta horrek guztiak bere burua eraikitzea ahalbidetuko du, ingurunean elkarreraginean ari den bitartean; parte hartuz edo lankidetzan arituz, bere bide propioak egingo ditu. Horregatik, besteekin jarduten duen neurrian, bereak egingo ditu.

Partaidetzako lankidetzak giza joera natural bat da, bizitzaren lehen unetik bertatik maila anitzetan landu daitekeena. Hori da benetan garrantzitsua dena, jardutea. Parte hartzea eta lankidetzan aritzea haur-autonomiak aurrera egiteko mekanismoa da. Haur-autonomiaren orotarako giltza.

EKARPENAK


HEZKUNTZA AKORDIOA

Legearen aurreproiektuaren zirriborroari ekarpenak egiteko prest dira eragileak

Askotariko iritziak entzun dira irailaren 14an Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Hezkuntza Legearen aurreproiektuaren zirriborroari buruz. Gabeziak, hutsuneak eta zehaztasun falta aipatu dira, baina baita momentu hau probesteko deiak ere, Euskal Herrirako hezkuntza sistema propioa erdiesteko bidean.

| kasturte hasierarekin batera etorri da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Legearen aurreproiektuaren zirriborroa, eta segidan erreakzio soka. Steilasek “irmoki” kritikatu du, ELAk “hutsuneak” ikusi dizkio, LABek “gabeziak”, CCOOk zehaztasun falta nabari du hainbat gaitan eta Ikastolen Elkarteak “atsekabetuta” agertu da. Euskalgintzaren Kontseiluak kezka adierazi du legeak ez duelako zehazten euskal hezkuntza sistemak zein hizkuntza ereduri jarraituko dion. EHIGEk adierazi du zirriborroak “ez duela jasotzen eskola publikoa izan behar dela euskal hezkuntza sistemaren ardatza”. EP-IU alderdiak uste du testuak “legebiltzarrak adostutakoari ez diola erantzuten”. Kritikak kritika, ELA alderdiekin eztabaidatzeko prest agertu da, LABek ekarpenak egin ditu, Ikastolen Elkartek aukera baliatzeko “ausardia” eta “adorea” eskatu ditu eta Kristau Eskolek “onena” emateko “konpromisoa” agertu dute.

Batez ere, hainbat punturen gaine-



ko zehaztasun falta azpimarratu dute eragile gehienek. Esate baterako, **euskararen** gaiaren inguruan aurreproiektua hankamotz eta lauso geratu dela uste dute ia denek. Steilasen iritziz “ez da euskara erdigunean jartzen”. LABek dio euskararen murgiltze eta mantentze sisteman oinarrituriko ikaseredu bakarra ezarri behar dela. ELAk irakas hizkuntza

izateaz gain, euskararen presentzia eskolako jarduera guztietan bermatu behar dela azpimarratzen du —jangelan, eskolaz kanpoko jardueretan, jolas orduen zaintzan, autobus zerbitzuetan...— eta euskararen erabilera neurtu ere egin behar dela. Ikastolen Elkarteak ez da ase murgiltze eredua jaso gabe ikusita. “Murgiltze eredua ez da jasotzen, ez ditu hizkuntza



ereduak ezabatzen eta euskara ez du ikastetxeetako komunikazio hizkuntzat hartzen. Zirriborroak esparru eleanitza aipatzen du, euskararen protagonismoa lausotuz. Eleaniztasuna bai, baina hezkuntza euskalduna aldarrikatzen dugu, euskara eta euskal kultura protagonista nagusi eta lehentasunezko elementu dituen hezkuntza proiektuan”. Horrekin batera, euskal curriculuma ez aipatzea ere gabezitzat hartu dute, “belaunaldiz belaunaldi euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeko ezinbesko elementua baita”.

Hezkuntza Zerbitzu Publikoa-ren sorrera ontzat jo dute eragile gehienek, baina bertan sartuko diren ikastetxeen eskubideak eta betebeharrak ez zehazteak kezka eragin du. LABek “euskalduntzean, laikotasunean eta inklusioan” izan beharreko betebeharrak zehaztea eskatu du. Ikastolen Elkarteak zerbitzuan sartzen diren ikastetxe guztiek “eskubide eta betebeharrak berberak izatea” eskatu du, “dikotomia publiko-pribatua betikotu ez dadin”. ELAk, berriaz, Gardentasun Mahaia sortzeko beharra azpimarratu du.

Segregazioaren aferak ere kezka sortzen du eta segregazioaren kontrako neurriak gehiago zehaztea eskatzen dute. **Doakotasunak** ere oraindik erantzunik gabe geratu diren galdera asko sortu ditu.

Aurrera begira jarrita

Ekarpenak egiteko epea irekita dago eta Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak horixe azpimarratu du: “Baikorra naiz, eta zuhurtziaz jokatzeko jarraituko dugu. Aukera paregabea daukagu XXI. mendeko hezkuntza eraldatzailerako aurrera eramateko, euskal hezkuntza sistema propio baterako urrats esanguratsua egiteko”. Administrazioa aldatetako egiten ari dela gogorazi du, besteak beste segregazioaren aurkako neurriak datorren ikasturtetik aurrera indarrean egongo direla esan du, eta doakotasuna “prozesu bat” izango dela. Bidea “denok elkarrekin” egin beharrekoa dela azpimarratu du. Baikortasunik galdu gabeko mezuak izan ditu Pello Otxandiano EH Bilduko programa zuzendariak ere: “Hezkuntzaren arloan dagoen aukera ezin dugu galdu. Gure onena jarriko dugu aukera hau baliagarri izan dadin. Argi daukagu euskal hezkuntza sistema propio baterako trantsizio legea izan behar duela”. Norabide horretan, hezkuntzaren gaineko “mugarik gabeko eztabaida bat” egin asmo dute.

Euskal Herrirako hezkuntza sistema propio bat lortu nahi bada, ezinbestekoa izango da begirada luzatzea, bakoitzak bere egoerari begiratu ordez herri gisa begiratzea, pentsatzea, hausnartzea eta eztabaidatzea.

“Ez da euskara erdigunean jartzen”

Steilas

“Gardentasun Mahaia sortu behar da Hezkuntza Zerbitzu Publikoan”

ELA

“Eragiten jarraitu beharra dago euskal eskola publiko eta komunitarioa helburu hartuta”

LAB

“Euskal curriculuma aipatzea falta da, belaunaldiz belaunaldi euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeko ezinbesteko elementua baita”

Koldo Tellitu, Ikastolen Elkartearen lehendakaria

“Aukera paregabea daukagu XXI. mendeko hezkuntza eraldatzailerako aurrera eramateko, euskal hezkuntza sistema propio baterako urrats esanguratsua egiteko”

Jokin Bildarratz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua

AHALDUNTZE ESKOLA

HITANOAREN ERABILERA

“Ingo xonau?” “Ingo xuau!”

Hitanoa biziberritzeko asmoz sortu zen ‘Ingo xonau!’ egitasmoa Oñatin 2019an. Emakumezkoek hika gero eta gutxiago erabiltzen zutela ikusita, noka indartzeko apustua egin zuten. Herri osoa zipriztindu du egitasmoak, baita ikastetxeak ere, eta ikasgeletan hika lantzen hasi ziren.

Idoia Etxeberria oñatiarra da eta Badihardugu elkarteko kidea. *Ingo xonau!* proiektuaren arduraduna da Etxeberria eta berak eman digu egitasmoaren nondik norakoaren berri.

Zergatik abiatu zenuten ‘Ingo xonau!’ egitasmoa Oñatin?

Herritar talde bat kezkatuta zegoen hitanoaren, bereziki nokaren erabilerak behera egin duelako, nabarmen, azken urteetan. Berrogeita hamar urtetik gorako emakumeek erabiltzen zuten batez ere, baina adin horretatik behera erabiltzen zutenak gutxi batzuk baino ez ziren. Mutilen artean, berriz, bizirik dago, baina hika mutilen arteko kontua izaten da eta neskei egitekotan, askotan toka egiten diete.

Ni *Ahotsak.eus* egitasmoan ari naiz lanean, Badihardugu elkartean. Gure elkartearen helburua ahozko ondarea jasotzea da, baina euskalkiak eta herri hizkerak indarberitzea ere ezinbestekoa da guretzat. Oñatiarra izanik, nirekin harremanetan jarri ziren noka jasotzea interesgarria izango litzatekeela esanaz. Lanean hasi ginen eta hainbat emakume elkarriketatu genituen noka jasota gera zedin. Baina jaso soilik ez, ikusi genuen biziberritu

ere egin behar zela. Eta *Ingo xonau!* proiektua sortu genuen.

Nondik hasi zineten?

2019an hasi ginen lehen elkarriketak egiten. 54 pertsona elkarriketatu genituen guztira, horien artean 52 emakume. Bi gizon ere elkarriketatu genituen, haiek ere noka egin baitezakete, ez da emakumeen

kontua soilik.

Jasotako testigantzekin ikus-entzunezko materialak sortu genituen. Horien artean, 25 minutuko dokumental labur bat. Oñatin nokaren erabilera zergatik galdu den azaltzen dugu bertan. Erabilera sustatzeko txapak eta *Oñatiko hika poltsikaran* liburuxka atera genituen eta baita herrian debalde ba-



Mirari Sagarzazu *Oñatiko hika poltsikaran* liburuxkaren diseinatzailea eta Idoia Etxeberria *Ingo xonau!* egitasmoaren arduraduna. Argazkia: Goiena.



Irakaslea gelan *Oñatiko hika* poltsikaran liburuxkak banatzen. Argazkia: Goiena.

natu zuten *Hika txuleta* ere. Adizki erabilienak jaso genituen txuleta horretan. 'Hikalaguna' izeneko proiektua jarri genuen martxan; hika ikastaroak egin ditugu, Beatriz Irizar irakasle dela... Hika ikasteaz gain, ikastaro horiek emakumeak ahalduzko tresna ere izaten ari dira.

Eta ondoren egitasmoa ikasgeletara iritsi zen.

Ikastetxeetan hitanoa lantzeko unea iritsi zen, bai. Mudantza garai moduko bat dagoela ikusten genuen. Ume-umetan agian ez da hika egiten, baina mutilen artean, nerabezero garaian hika egiten hasten dira. Mudantza hori gertatzen den momentuan aditzak ezagutzeko aukera izatea eta soilik mutilen kontua ez dela jakitea garrantzitsua dela iruditu zitzaigun. Beraz, irakasleekin hitz egin eta zer bait

egitea erabaki genuen.

Eta nola jarri zenuten martxan? Zer alderdi hartu zenituzten kontuan?

Irakasleek esan ziguten zer bait ari na izan behar zela, denbora askorik hartzen ez zuena, lanez leporaino eta denborarik gabe zebiltzalako. Zerbait ari na eta jolastia izan behar zuen, ahozkoa lantzeko aukera ematen duena. Eta asteen behin, ordu laurdeneko tarte eskaintzea erabaki genuen. Irakasleak prest agertu ziren, eta euskarazko irakasgaiaren barnean lantzen dute gaia. Hiru ikastetxetan ari dira egiten: Txantxiku ikastolan, Larraña institutuan eta Elkar Hezi ikastetxean.

Eta zer mailatan lantzen da?

DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailatan lantzen ari dira, baina ikastetxe bakoitzean erabaki dute zein mailatan landu,

betiere ikasleen profilaren arabera. 2021eko urtarrilean hasi ziren eta horretan jarraitzen dute orain ere. Lehenengo egunean liburuxka, txuleta eta txapa banatzen dizkiete ikasleei eta dokumentala ikusten dute. Hortik aurrera, bakoitzak bere martxan lantzen du. Ahozkoa lantzeko hogeita hamar proposamen prestatu genituen, irakasleek bikoteka lantzeko: iritzi-trukeak, asmakizunak, lehiaketa txikiak, jolasak... egiten dituzte. Jolasarekin lotzen dutenez, ikasleentzako motibagarria da eta gustura egoten dira. Gazte hizkera informal moduan bizitzen dute hitanoa eta eurentzat baliagarria dela ikusten dute. Hori bai, kaleko erabileran benetako eragina izan dezan, hori pixkanaka-pixkanaka egosi behar da. Irakasleen orain arteko balorazioa oso positiboa izan da eta urtero lantzen jarraitzeko asmoa dute.

GALDEIDAZU

ZEIN ERRONKA DITU IRAKASLEEN PRESTAKUNTZAK EUSKARAZKO KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA ETA SUSTAPENA BERMATZEKO?

Irakasleak euskal kulturaren janzteko tresnak eta baliabideak behar direla aipatzen da maiz, kontzientzia hartu behar dugula eta ikasleei euskara irakaste hutsetik ikasleak euskalduntzera pasa behar dugula. Baina inoiz ez dugu horretarako egiturazko neurriak hartzen; administrazioek ez dute lehentasunen artean kokatzen, eta gainerako eragileak ez dira helburu horiek erdiesteko antolatzen. Eta bada garaia. EAEko curriculum berriak, adibidez, hezkuntza arautuan irakasleen gaitasun batzuk bermatzeko eskaera zehatzak eta neurri ekonomikoak hartuko ditu, eta sare publikoko irakasleek digitalizazioan trebatzeko bi urteko epea izango dute. Horretarako, inbertsioak egingo dira, eta ez du ematen inork zalantzan jarriko duenik irakasleek gaitasun digitala beharko dutela hezkuntzak etorkizunean izango dituen erronkei modu egokian erantzuteko. Baina, era berean, bestelako gabeziek (larriagoek) bere horretan jarraituko dutela ematen du: noizko kulturaren arloko trebakuntza? Noiz izango da derrigorrezkoa kulturaren trebatuta egotea? Badirudi etorkizunean ere irakasleen ezagutza eta transmisio kulturala norbanakoaren borondate, identitate eta ideologiaren baitakoa izango dela. Ez baita hori herri honen lehentasuna, agi denez.



IDURRE ALONSO AMEZUA
HUHEZIko irakaslea eta ikerlaria



Bada garaia herri gisa erronka horri heltzeko, eta horretarako, ezinbestekoa da irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan euskal kulturaren transmisioari modu serioagoan heltzea. Izan ere, Iratxe Retolazak dioen moduan, kulturak munduaren inguruko errepresentazio bat egiten du, eta oro har, aukerak ematen dizkigu pertsona nahiz komunitate gisa ez soilik gure gaurkoari patxadaz begiratzeko eta kritikoki irakurtzeko, ez bada etorkizunari begira ere aukera posibleak irudikatzeko.

Ildo horretatik, nik bost erronka nagusi azpimarratuko nituzke etorkizunera begira:

1. Ipar nazionalak marraztea, eta ipar horiek lortzeko ikasleen eta irakasleen profil idealak irudikatzea. Ez ahal dugun horretatik, baizik eta nahi dugun horretatik. Eta iparrak herri mailakoa izan behar du. Eduardo Gleanok esaten zuen utopiek ibiltzen jarraitzeko balio dutela, eta une honetan hori behar dugu, ipar partekatu baterantz ibiltzen jarraitzea. Herri honek utopietan sinetsi izan ez balu, gaur egun, adibidez, ikastolarik ez litza-teke egongo. Utopian sinetsi izanak ekarri gaitu honaino eta utopietan sinesten jarraitu beharko genuke ibiltzen jarraitzeko. Hegemoniek ez ditzatela gure iparrak marraztu.

Azkenaldian gure hezkuntza

sistemaren aldarri bihurtu dira eleaniztasuna, kulturartekotasuna... Ez ote dira, ba, hizkuntza nagusiak horretan ardura handiagoa dutenak? Zergatik ez dugu hiztun gutxiagotuez hitz egiten, euskal kulturaren transmisioaren etena ardatzean jartzen...? Zer da euskara ardatz izatea, ez bada euskal identitatea eta kultura ardatzean jartzea? Horrek zeharka dezala curriculum behetik gora, ezker eskuin. Baina hegemoniak beste formazio behar batzuk agintzen dizkigu: sare publikoko irakasleek digitalizazioan titulua atera beharko dute bi urteren buruan. Baina ardatza ez al zen euskara? Gure utopiak zein diren zehaztu beharko genuke behingoz, eta bide horietan aurrera egin. Eta bide horrek sistematikoa, egiturazkoa eta nazionala izan behar du.

Bestalde, Euskal Hezkuntzaren ardura duen egitura nazionala behar dugu, honako helburuekin: Euskal Herriko unibertsitateek, eskolek eta herrigintzako erakundeek egoeraren diagnosia egin eta aurrera begirako bideak adosteko eta horiek egonkortzeko; Haur Hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino herri gisa pentsatzeko zer egin kultura eta identitatea ardatzean jartzeko eta erronka horri tamainako erantzuna emateko; euskal unibertsitateen arteko lankidetzak eta saretzek ekarriko dituzten ikasketak eta ikerketak nola indartu pentsatzeko; eta, azkenik, formazio talde nazionalak eraikitzeke, unibertsitatea eta eskola elkarrekin arituz eta kulturaren biziberritzea ardatzean jarritz.

2. Edozein irakasle izan behar du hiru ardatz hauen inguruko ezagutza euskal hezkuntza sisteman aritzeko: euskara gaitasuna, ezagutza soziolinguistikoa eta kulturaren ezagutza. Eta horiek hirurak ikasleekin lantzeko estrategiak behar dituzte, beren jakintza-arloa zeinahi delarik ere. Zientzietako irakaslea izan, Gizarte-Zientzietakoa izan, Hizkuntzakoa izan... denok izan beharko genituzke hiru ezagutza horiek. Baga, idatzizko eta ahozko komunikazioan trebeak diren irakasleak behar ditugu, eta ikasleak komuni-

kazio horretan trebatzeko gaituak. Biga, hiztun kontzienteak nahi baditugu, ezin dugu kontzientzia hori lantzea Euskara eta Literaturako irakaslearen gain utzi, eta curriculumean islatzen den euskararen instrumentalizazioa gainditu behar dugu, eta kultur identitatea bere osotasunean hartu.

Euskaraz bizitzea hautu bat da hizkuntza gutxiagotuetan. Helena Baraibarrek dioen moduan, “euskara irakasteaz gain, euskaldun izatea zer den azaldu behar zaio ikasleari”. Baina, era berean, ezin dugu ardura guztia ikaslearengan utzi. Beraz, ikasleek zein irakasleek euskal hiztun aktibo bihurtzeko, hizkuntza gutxituan aritzearen arrazoiak ulertu, eta euskal kultur komunitatearen parte aktibo izan behar dute.

Eta higa, kultur ezagutza duten irakasleak behar ditugu. Aitor Etxartek zioen moduan, irakasleak kultur eragile izan behar du, eta horretan huts egiten ari gara. Askotan aipatzen da eta hauspotzen dira motibazioa edota erakarpenaren indarra. Maialen Lujanbiok zioen moduan, erakarpenetik ekarraraztera pasatu behar dugu, eta bada hori egiteko garaia. Kasu horretan, motibazioa eta bizipenak garrantzitsuak dira, baina jakintza ezinbestekoa da iparrak markatuko baldin baditugu. Irakasle batek hizkuntzaren eta kulturaren bilakaera ezagutu beharko lituzke, jakin beharko luke hizkuntza eta kultura biziberritzeko prozesuetan gakoak zein diren, baita euskal gizartearen ezaugarriak eta tentsioak zein diren ere; kultur politikak eta plangintzak nolakoak diren eta nolakoak izan beharko lirakeen, eta kulturgintzaren adarrak eta bakoitzaren ibilbideak, galdegaiak eta erronkak zein diren. Hori guztia jakinda pasako gara esperientzietara, motibatzerara, pozik egotera, emozionatzera eta ikastera, baina lehenik eta behin iparrak behar ditugu.

Bestalde, ikastoletatik kanpo aritzen diren irakasleei material koherentea erabiltzea eskatuko nieke. Askotan pentsatzen dugu ikastetxe batean material jakin bat

Sare publikoko irakasleek digitalizazioan titulua atera beharko dute bi urteren buruan. Baina ardatza ez al zen euskara? Gure utopiak zein diren zehaztu beharko genuke behingoz, eta bide horietan aurrera egin. Eta bide horrek sistematikoa, egiturazkoa eta nazionala izan behar du.

erabiltzen denez horrekin aurrera egitea beharrezkoa dela, baina ez dago zertan. Ikastolen Elkartek, esaterako, material bikaina argitaratzen du, euskaraz eta euskaratik sortua, Euskal Herrian eta Euskal Herritik. Bada garaia, beraz, inertzia batzuk apurtu eta herri gisa modu kontzienteagoan aritzeko, dela hautatzen dugun materialetan, dela lantzen ditugun edukietan, dela hizkuntzari eta kulturari ematen diogun zentraltasunean.

3. Herri honetan abangoardiak osatu behar dira euskal kulturaren biziberritze prozesuan. Hezkuntza sistemak abangoardia horren parte aktibo izan beharko luke, eta beraz, irakasleak horretarako prestatu. Hizkuntza eta kultura hegemonikoen itzalpetik atera behar dugu, baina diskurtso eta eztabaida hegemonikoetatik

Irakasle batek hizkuntzaren eta kulturaren bilakaera ezagutu beharko lituzke, jakin beharko luke hizkuntza eta kultura biziberritzeko prozesuetan gakoak zein diren.

ateratzea ere beharrezkoa da eta hor kattramilatze handia dago. Diskurtso eta eztabaida antzuetan sartzen gaituzte aurrera egin ez dezagun, oztopoak izan ditzagun, eta gu betebeteen sartzen gara eztabaida antzu horietan. Horren adibide garbia da ikastolen kontrako gurutzada ere.

Gaur egun ikastola da daukagun hezkuntza proiektu nazional bakarra, eta beraz, pentsatzekoa da ikastolek dutela kulturaren biziberritze prozesuan abangoardia izateko indarrik garrantzitsuenetakoa. Joxi Imazek eta bestek ziotenaren haritik, “publiko-pribatu eskema liberala sinpleegia da, eskema horretan beste espazio inportante bat falta delako: herrigintzarena. Beti garrantzitsua, baina bereziki gurea bezalako herrialdeetan, estaturik gabeko nazioetan”. Ildo horretatik, gure helburuak eskola sistema propioa izan beharko luke, eta pentsatu beharko genuke nola prestatu irakasleak kulturaren biziberritze prozesuan eragile aktibo izan daitezzen. Ikastoletan, erakunde gisa, eta ahal den neurrian, administrazioen esku dauden ikastetxeetan.

Horrenbestez, diskurtsoak geuretik eraiki behar ditugu, eta eztabaida horiek geuretik kokatu. Irakasleek ere jakin beharko lukete hezkuntzaren parte diren eztabaida horiek birkokatzen. Hainbat

eztabaida eta galdera datozkigu etengabe, eta guk erabaki beharko genuke geure banderak zein diren zeren, askotan, txikiagoak izatearen konplexutik hartzen ditugu inposatzen dizkiguten banderak.

4. Kultur esperientziak eskaintzen trebatu behar ditugu irakasleak: hasi kultur kontsumotik eta ikaslearen sorkuntzaraino. Horretarako, etengabeko formakuntzak ere eredu horretatik edan behar du. John Deweyk esperientziatik ikasleko beharra aldarrikatu zuen XX. mendearen hasieran, eta oraindik ere, ez dugu lortu hezkuntzan kultur esperientzia aberatsak eskaintzea. Horren sorburuan, beharbada, irakasle batzuen esperientzia falta egon liteke euskal kulturaren baitan, baina beste batzuetan, kultura hori biziarazteko estrategiak falta zaizkigu. Kultura tripetatik pasatu behar da bizi-esperientzia gisa emankorra izango bada.

Euskararekiko eta kulturarekiko atxikimendua lortu nahi baditugu, esperientziak eskaintzea ezinbestekoa da. Eta jakina, ikasleei esperientzia horiek biziarazteko, irakasleak bere azalean bizi behar ditu aurrez, eta horrez gain, esperientzia horiek biziarazteko eta

horietatik ikaslarazteko estrategietan formazioa behar du.

5. Hezkuntzaren dimentsio komunitarioan arituko diren irakasleak behar ditugu, egoera berriei herri gisa erantzungo dietenak. Jendarte likido edo gaseosoa omen da bizi duguna, galkortasunak eta aldakortasunak ezaugarritzen duten jendartea; ez dago behin betiko irtenbiderik ez harreman edo egitura sozial egonkorrik. Hori horrela, irakaslearen formazioak berebiziko garrantzia du hezkuntzan dauden erronkei aurre egiteko. Izan ere, irakaskuntza azalekoa eta galkorra bihurtu da, etengabeko berrikuntza eta formazioaren berehalako eraginak bilatzen dira. Irakasleek errealitate aldakorretara egokitu behar dute, eta, beraz, garrantzitsua da irakasleak etengabeko formazioarekin konpromisoa izatea. Ildo horretatik, euskarari eta euskal kulturari ardazturiko irakaskuntza nahi badugu, gai horietan irakasleek etengabeko formazioa ezin da aukerakoa izan. Egoerari neurriko erantzuna emateko, formazio talde nazional bat sortu behar dugu eta kulturaren biziberritze prozesua bermatuko duten irakasleak prestatu.



ARGITALPENAK



HIRU LEHOI

Edu Zelaia Anta eta Txabi Arnal Gil -
Alex Fernández Villanueva

ELKAR

Mapa zahar bat emanez esan zion amonak Duniari, mundu honetatik joan aurretik, bere bizitzako sekreturik handiena partekatu nahi Zuela berarekin. Amonak altxor bat gorde baitzuen urte luzetan inorri ezertxo ere esan gabe. Nolakoa izango ote da amonak hain ezkutuan gorde duen altxor hori?



ELMER ETA OPARIA

David McKee

EREIN

Elmer elefantearen abentura berri bat kontatzen du liburuak. Izeba Zeldak badaki Elmerri zerbait eman behar diola baina buruari eragin eta eragin, ez du oroitzen zer den. Lortuko al du izebak ilobari zer eman behar dion gogoratzea? David McKee idazle eta ilustratzailearen beste lan bat ekarri du euskarara Erein argitaletxeak.



HOLAKOAK DIRA GURE HILEKOAK

Carolina (EsCarolota) de Prada Antón

TXALAPARTA

Hilekoa, menstruazioa... Liburua askotariko gorputz eta bizipenen bidez mintzo zaigu menstruazioari buruz, irudiz, umorez eta ikuspegi feministaz. Biltzen dituen istorioak EsCarolota ilustratzaileak hainbat pertsonarekin izandako solasaldien emaitza dira. Hilerokoari buruzko galderei modu argian erantzuten die lanak.



UZTARO 121

Hainbat arteak

UEU

Hainbat gairi buruzko artikulua bildu dituzte zenbait autorek *Uztaro* aldizkariaren 121. alean. Oraingo honetan ere hezkuntza arloko gaiak landu dituzte. Horren erakusgarri, beste batzuen artean, *Eskola Txiki bateko irakasle talde baten harreman pedagogikoen analisia* izeneko artikulua.



ELE-MELEKA

Hainbat arteak

LASARTE-ORIAKO UDALA

Ele-Meleka. Bigarren Hezkuntzako nerabeeen hizkuntza-sozializazioan laguntzeko proiektua izeneko liburuxka argitaratu du Lasarte-Oriako udalak. Lasarte-Oriako Udaleko euskara zerbitzuak, Ttakun Kultur Elkarteak, Oriarte BHIk, Ebetek eta Asier Huegunek osatu dute esperimentzian oinarritutako lana.



HELDU GAREN GUZTIAK

Antonio Rubio - Maria Girón

KALANDRAKA-PAMIELA

Jatorri ezberdineko haurrak elkarri laguntzeko elkartu dira jokoak, abestiak, zapoak eta dantzak partekatuz. Asiako, Afrikako, Amerikako eta Europa erdialdeko haurrak batu dira ikasgelan, bakoitzak bere ama hizkuntza eta bere ohiturak dituela. Joseba Sarrionandiak egin du itzulpena.

PROPOSAMENA

Ikusgela

Ikus-entzunezkoak euskaraz eta libre

Ikusi eta ikasi, eta ondo entzun, dio abestiak. Eta horretarako aukera emango digu aurrerantzean Ikusgelak: ikusteko, entzuteko eta ikasteko aukera. Hainbat gairi buruzko bideo pedagogiko libreak eskainiko dituzte, euskara hutsez eta edonork ikusteko eran.

Euskarazko bideo pedagogikoak sortzeko proiektua da Ikusgela, eta euskarazko Wikipedia osatzeko helburua du. Eskolaz kanpoko eremuetara zabaltzeko bokazioz sortu bada ere, ikasleentzako zein irakasleentzako tresna erabilgarria izango da. Hala azaldu du Ander Bolibar Ikusgelako arduradunak: “Ikasleek bigarren azalpen bat jasotzeko aukera izango dute aurrerantzean. Gure planteamendua hauxe da: ikaslea bere kabuz heldu dadila material horietara, eta ez irakasleak esan diolako. Demagun eskolan Platon lantzen ari direla, Youtubera sartzen dela eta euskarazko bideoa ikusten duela. Modu horretan eskuratzeko pentsatuak daude bideoak, eta ez hainbeste irakasleak ikasgelan erabiltzeko material moduan, baina ziur ikasgeletan ere erabiliko dituztela. Ikasgela iraulia metodologiarako ere pieza interesgarriak dira”.

Hala ere, ez dituzte ordezkaturiko ikasgelan erabiltzen diren materialak: “Material osagarria da eta orain artean euskarak eduki ez duen



eremua hartu dugu. Erdaraz halako euskarri ugari dago, baina euskaraz hutsune handia zegoen eta horregatik ekin genion bideoak sortzeari”. Euskarazko hutsunea betetzera datoz, beraz: “Sarean kontsumitzen diren edukien % 80 ikus-entzunezkoak dira eta ingurune digitalean euskara konkistatu beharreko eremua dela iruditzen zaigu. Gaur

egungo kontsumo ohiturak kontuan hartzea da geure asmoa: geure kosmobisiotik, geure herritik eta geure hizkuntzan”.

Gainera, Ikusgelak zubi lana egin nahiko luke: euskara eremu formalean soilik erabiltzen dutenak eremu informalean ere euskarazko edukiak ikustera bultzatu nahi ditu. Ikasleei eta irakasleei baliabideak

eskaintzeaz gain, nerabeak euskarazko edukiak kontsumitzera bultzatu nahi ditu eta horregatik sortu dituzte eskola curriculumari hertsiki loturik ez dauden bideoak ere.


Hainbat gai

Ikusgelak nahi beste material eta formatu lantzeko aukera zabaltzen du baina lau gairekin hastea erabaki dute: filosofia, ekonomia, euskal literatura eta historia. Filosofian, esaterako, euskarazko materialaren falta handia zegoela adierazi zieten Ikusgelako arduradunei Agora elkarteke eta EHUKo Joxe Azurmendi katedrako kideek. Hala azaldu du Bolibarrek: “Curriculumean euskaraz landu arren, ikasleek materialak ingelesez eta gazteleraz erabiltzen zituztela esan ziguten eta hutsune hori betetzeko beharra ikusi genuen. Filosofian, adibidez, Agorako eta EHUKo Joxe Azurmendi katedrako kideek egiten dizkigute fitxak eta haiek finkatu dituzte edukiak. Guk koordinazio lana egiten dugu eta, era berean, alderdi pedagogikoa lantzen dugu. Ekonomiako bideoak,

esaterako, Lanbide Heziketako Jakinbai elkartearekin harremanetan egin ditugu eta bertako irakasleek berrikusi dituzte gidoi guztiak”.

Edukiari berari edukiontzari baino garrantzi handiagoa ematen diote Ikusgelako arduradunek, eta Wikipediak eta Youtubeko kanalak garrantzi handiagoa izango dute bideoen zabalkundean Ikusgela web atariak berak baino.

Euskal Wikilarien Kultura Elkar-teak koordinatzen du egitasmoa eta Hiru Damatxo ikus-entzunezkoen ekoiztetxea ere proiektuan murgildu da hasieratik. Maiatzean hasi zuen ibilbidea Ikusgelak Simone de Beauvoir eta Hannah Arendt filosofoen bideoak zintzilikatuz. Selek-tibitatean lehen aldiz bi emakume filosofo ebaluatu ziren eta jada landuta zuten material hori jendearen eskura jartzea erabaki zuten. Irailean egin zuten egitasmoaren aurkezpena eta aurrerantzean etengabe elikatuko dute Ikusgela. Ikasturte honetarako erronka astero bideo berri bat argitaratzea izango da. Ikusgela arnas luzeko proiektua dela uste dute arduradunek.



Ikusgela

www.ikusgela.eus

Honako plataformetan ere

ikus daitezke bideoak: Youtube, Wikipedia, Twitter, Instagram, Facebook eta Telegram.

Lantzen diren lehen gaiak: filosofia, ekonomia, euskal literatura eta historia.

Bideoen iraupena: 4-6 minutu.



ATZEKO ATETIK



GUZTION IRITZIAK AINTZAT HARTZEKO DEIA

NAROA JAIO JAIO

IURRETAKO OROBIGOITIA BHI-KO
BATXILERGOKO 1. MAILAKO IKASLEA

Ilaila hasi eta horrekin batera klaseak hasi dira. Aurten Batxilergoa hasi dugu eta, nahiz eta, hasiera batean nire aukera izan den, ez dakit benetan nik nahi izan dudalako aukeratu dudan. “Batxilergoa izateak asko laguntzen du”, “leku askotan Batxilergo titulua eskatzen dute”, “lana aurkitzea errazago egingo zaizu”. Bizitza osoan esaldi horiek entzuten ditugu eta horrek erabat baldintzatzen gaitu.

Batxilergoan hiru bide nagusi ditugu: zientifikoa, humanistikoa edo artistikoa. Horiexek dira gure etorkizuna erabakiko duten bideak. Batzuek oso argi izaten dute eta arazorik gabe aukeratzen dute; beste batzuek, ordea, ez dute hain erraz izaten. Nik egindako aukeraketa, adibidez, ez da erraza izan, ez

nekielako etorkizun batean zer izan nahi nuen. Oraindik ere ez dakit baina, beno, aukeraketa egina dago.

Lehenengo astea egin dugu eta, jada azterketa batzuk jarri dizkigute. Oraindik ez dugu eman beharreko guztia eman eta irakasleak ez digu guztia erakutsi, baina beno, ikasturteko “planninga” egina dago eta horretara moldatu behar gara, nahiz eta, nire ustez, alderantziz izan beharko litzatekeen; gure erritmoa errespetatuz hobeto barneratuko genituzke gauzak.

Beste alde batetik, emandako materia guztia ez daukat oso argi nork aukeratzen duen edo zeren arabera aukeratzen den. Ez dakit gure iritzia eta gure nahiak kontuan hartzen ote diren. Ulargarria da oinarritzko gauza batzuk jakin behar izatea eta hori denok ikasi behar

izatea, baina zein puntutaraino da beharrezkoa ematen den guztia?

Nik uste dut DBHn edo Batxilergoan ikasle askoren helburua ez dela ikastea edo gauzei buruz jakitea izaten, irakasgaia gainditzea baizik. Berdin du nola, baina garrantzitsuena gainditzea izaten da. Tranpak egin, ondokoari “txibatu” eta beste edozer gauza egiten dugu nahi dugun notara heltzeko. Ez daukagu motibaziorik eta, nire ustez, hori falta zaigu. Mila gauza daude aldatzeko eta ez da egun batetik bestera gertatuko, baina lehenbailehen hasi behar dugu horretan. Guztiok nahi duguna kontuan hartu behar da eta motibazioa piztu. Horrela, klaseak benetan baliogarriak izango lirateke eta klasean emandako teoria geure bizitzan praktikan jarriko genuke.

HAUR HEZKUNTZAKO JARDUNALDIAK

Azaroak 25 (BEC) eta azaroak 26 (Donostia)

HIZKETAN HASI EZINIK

Haurrak gero eta beranduago hasten dira hizketan eskaintzen dizkiegun ahozko komunikazioa eta interakzioa gero eta urriagoak direlako. Berandutze horrek ondorioak izan ditzake haurren hizketarako gaitasunean, pentsamenduaren eraikuntzan eta garapen integralean.

- Zergatik ari da berandutzen hizketa?
- Hizketa berandutzeak zer ondorio ditu haurren garapenean?
- Zer arrisku izan ditzake haurrekiko interakzioa eta komunikazioa gutxitzeak?
- Zer egin dezakegu hezitzaileok hizketaren berandutzea saihesteko?



MATRIKULAZIOA

Urriaren 14tik
azaroaren 14ra



Haurrekolak

LEHEN URRATSA

ZERO URTEREKIN HASTEN DA BIDEA

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN